# GFAren HERRITARREN PARTAIDETZAKO PLANA

# 2019-2023

## Partaidetzako Gizarte Kontseilua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

20/03/2020

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

## AURKIBIDEA


**ABIAPUNTUA** ..... 5

**1. 2015-2019 PARTAIDETZA PLANA** ..... 6

**a) SARRERA** ..... 6

**b) BALANTZEA** ..... 6

**2. HERRITARREN PARTAIDETZAKO 2019-2023 PLANA** ..... 16

**a) AURKEZPENA ETA HELBURUAK** ..... 16

**b) EGITURA** ..... 17

**1. ildo estrategikoa. HERRITARREN PARTAIDETZAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK** ..... 21

**1. esparrua. HAUSNARKETA ETA ERABAKI HARTZEA** ..... 22

**1. ekintza. Partaidetza tresnak sistematizatu** ..... 23

**2. ekintza. Partaidetzako hausnarketa prozesuak** ..... 24

**3. ekintza. Herri kontsultak** ..... 24

**4. ekintza. Arau aurreproiektuak sortzea** ..... 25

**5. ekintza. Herritar panelak** ..... 26

**6. ekintza. Herri epaimahaiak** ..... 27

**7. ekintza. Bestelako partaidetza prozesuak** ..... 28

**2. esparrua. PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK** ..... 32

**8. ekintza. Aurrekontu Irekiak** ..... 33

**3. esparrua. DIRULAGUNTZAK** ..... 34

**9. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak** ..... 35

**10. ekintza. Herritar erakundeentzako dirulaguntzak** ..... 36

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro


**4. esparrua. AHOLKULARITZA ........ 37**

11. ekintza. Erakundearen barne aholkularitza ........ 38

12. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza ........ 39

13. ekintza. Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza ........ 40

**5. esparrua. EBALUAZIOA ........ 41**

14. ekintza. Ebaluazioa ........ 42

**2. ildo estrategikoa. EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA ........ 43**

**6. esparrua. PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA ........ 44**

15. ekintza. Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola ........ 45

16. ekintza. Erakundearen barne prestakuntza ........ 47

17. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza ........ 48

18. ekintza. Partaidetzako profesionalaren profila eta gaitasunak zehaztu ........ 49

19. ekintza. Partaidetza akreditazioa ........ 50

20. ekintza. Udako Ikastaro parte-hartzaileak ........ 51

**7. esparrua. EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA ........ 52**

21. ekintza. Txostenak eta sistematizazioa ........ 53

22. ekintza. Gidak ........ 54

23. ekintza. Newsletterra ........ 55

24. ekintza. Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa ........ 56

25. ekintza. Artikulu akademikoak ........ 57

26. ekintza. Ekitaldiak ........ 58

27. ekintza. OGP Euskadin parte hartu ........ 59

28. ekintza. Sare akademiko profesionalak ..... 60
29. ekintza. Herritar Erakundeen Erregistroa ..... 61
30. ekintza. 5/2018 Foru Arauko II. tituluan jasotako eskubideen berri eman ..... 62
**8. esparrua. AITORPENA ..... 63**
31. ekintza. Sariak udalei eta erakundeei ..... 64
32. ekintza. Sariak bestelako eragileei ..... 65
**3. ildo estrategikoa. BERRIKUNTZA DIGITALA ..... 66**
**9. esparrua. BERRIKUNTZA ..... 67**
33. ekintza. Plataforma kolaboratiboa ..... 68
34. ekintza. Adimen Kolektiboko Software Sozial Laborategia ..... 69
35. ekintza. Sare Sozialak ..... 70
36. ekintza. “Blockchain” proiektu pilotua ..... 71
37. ekintza. Entzute aktiborako gailuen prototipoak ..... 72
38. ekintza. Herritarren partaidetzako Buru Moldeen tresnak ..... 73
39. ekintza. Herritarren partaidetzako Innogida ..... 74
**4. ildo estrategikoa. ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIAK ..... 75**
**10. esparrua. ORGANOAK ..... 76**
40. ekintza. Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua ..... 77
41. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea ..... 78
42. ekintza. Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Laborategia ..... 79
43. ekintza. Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa ..... 80
44. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa ..... 81

**11. esparrua. PARTAIDETZA ESPARRUAK** .......... **82**
45. ekintza. Herritarren Partaidetzako Alorreko Espazioetarako Gobernantza Eredu bateratua zehaztu .......... 83
46. ekintza. Elkarteen foroa .......... 84
47. ekintza. GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa .......... 85
**12. esparrua. ARAUDIEN GARAPENA** .......... **86**
48. ekintza. Araudiak garatu .......... 87
49. ekintza. Kode etiko baten garapena .......... 88
**EUSKARRI TRESNAK** .......... **89**
1. euskarri tresna. Egikaritze egutegia .......... 90
2. euskarri tresna. Komunikazioa eta sozializazioa .......... 91
3. euskarri tresna. Monitorizazioa .......... 92
**c) AZKEN BALANTZEA** .......... **93**

## ABIAPUNTUA

Sinnergiak Social Innovation-ek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak 2019-2023 legealdirako abian jarritako Herritarren Partaidetzako Planaren inguruko lan prozesuan kokatzen da agiri hau.

Erreferentzia hauek oinarritzat hartuta egituratzen da agiri honen edukia:

a) Joseba Muxikak (GFAko herritarren partaidetzako zuzendariak) bidalitako dokumentua: «GFA 2019-2023 Kudeaketa Plan Estrategikoa: Herritarren Partaidetzako zuzendaritza Nagusiak garatu beharreko ekintzak» izenekoa.

b) Itziar Calvok (Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuburua), «2019-2023 Partaidetza Programa – Proposamena» izenekoa.

c) Herritarren Partaidetzako Plana 2015-2019, GFArena.

d) 2018 Herritarren Partaidetzako Zerbitzuaren zerbitzu karta.

e) 5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa, Herritarren Partaidetzari buruzkoa.

f) Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiaren 2015-2019 jarduera memoria.

g) Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak zuzendaritza guztiekin egindako bilkuren aktak.

h) Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzendaritzek osatutako partaidetza proiektuak zehazteko fitxak.

i) Sinnergiak Social Innovation-en ekarpenak.

Agiri hau bi zatitan dago banatuta: Lehen zatian **aurreko legealdiko Partaidetza Plana** aztertzen da. Alde batetik, diseinatutako ekintza edo jarduketak identifikatzen dira, eta bestetik, jarduketa horien betetze maila. Bigarren atalean **Herritarren Partaidetzako Plana 2019-2023** aurkezten da, aurreko planaren analisia eta Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak eman zein garatutako dokumentuak oinarritzat hartuta. Plan berriaren **egitura, ildo estrategikoa, bere esparruak eta ekintzak** biltzen ditu proposamenak, eta **plana bera kudeatzeko euskarri tresnak** ere aurkezten ditu. Amaitzeko, **balantze** bat ere aurkezten du, proposatutako ekintzak berriak ala aurrekoen jarraipena diren, behin-behinekoak diren eta horien hartzaileak nor diren zehaztu ahal izateko.

# 1. 2015-2019 PARTAIDETZA PLANA

## a) SARRERA

2015-2019 Partaidetza Planak lau jarduketa ardatz izan zituen oinarri: indartu, zabaldu, erraztu eta hedatu.

**1. irudia. 2015-2019 Partaidetza Planaren jarduketa ardatzak**

Indartu → Zabaldu → Erraztu → Hedatu

**Indartu:** Gipuzkoako herritarren artean partaidetza kultura kudeatu eta errazteko antolakuntza egiturak abian jartzeko jarduketak.

**Zabaldu:** partaidetza prozesuak garatu, GFAren departamentu ezberdinak tartean sartzeko.

**Erraztu:** partaidetza tresna eta prozesuak garatu, partaidetza kulturan sakontzeko.

**Hedatu:** herritarren partaidetzaren inguruko informazio, elkarrizketa eta erkatze jarduketak egin, bitarteko telematiko zein presentzialen bidez.

## b) BALANTZEA

2015-2019 legealdian, GFAko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak 63 jarduketa proposatu zituen guztira, arestian aipatutako lau ardatzen arabera sailkatuta. Ardatz bakoitzean garatutako jarduketa kopurua ageri da 1. taulan.

**1. taula. 2015-2019 Partaidetza Planean garatutako jarduketa ardatzak eta ekintzak**

| Jarduketa ardatza | Garatutako ekintza kopurua |
|---|---|
| **Indartu** | 9/9 |
| **Zabaldu** | 48/66 |
| **Erraztu** | 9/9 |
| **Hedatu** | 6/8 |
| Guztira | 72/92 |

Jarraian ageri dira zehaztuta 2015-2019 Partaidetza Planaren analisiaren alderdi aipagarrienak, ardatzaren eta ekintzaren arabera zehaztuta:

**2. taula. Indartze ekintzak**

| **INDARTU** | |
|---|---|
| **Ekintza** | **2015-2019 legealdian zehar gauzatu da ekintza?** (Bai/Ez) |
| Legealdi osoko Partaidetza Plana onartu eta garatu | Bai |
| Herritarren Partaidetzako Plana urtero garatu | Bai |
| Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa | Bai |
| Foru Arau berria onartu | Bai |
| Gizarte Kontseilua sortu* | Bai |
| Udalen Kontseilua sortu | Bai |
| Foru Batzordea aktibatu | Bai |
| Herritar Erakundeen Foru Erregistroa aktibatu | Bai |
| Herritarren Partaidetzako Zerbitzuaren zerbitzu karta onartu | Bai |

**Gizarte Kontseilua dekretu bidez sortuta dago, baina ez da martxan jarri.*

**3. taula. Zabaltze jarduerak**

| ZABALDU | |
|---|---|
| **Ekintza** | **2015-2019 legealdian zehar gauzatu da ekintza?** (Bai/Ez) |
| **Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza** | |
| Helburu estrategikoak zehazteko prozesua, Euskaltzale kolektiboaren lankidetzan, eta berrikuntza ezarri, lan metodologia gisa | Bai |
| GFAk komunikabideen aurrean duen hizkuntza komunikaziorako irizpideak lan-tzeko prozesua | Bai |
| **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa** | |
| Gipuzkoako Berdintasun Kontseiluaren helburuak berritzeko prozesua | Ez |
| Dirulaguntzak banatzeko irizpideak berriro zehazteko prozesua | Bai |
| Indarkeria matxistaren inguruko egoera eta xehetasunak aztertzeko prozesua | Ez |
| **Bizikidetzako eta Giza Eskubideetako Zuzendaritza** | |
| Gipuzkoako Udalen bizikidetza sarea abian jartzeko prozesua | Bai |
| **Kudeaketa Estrategia eta Berrikuntza Zuzendaritzak** | |
| Gipuzkoa Sarean programaren barneko partaidetza prozesuak | Ez |
| **Komunikazio Zuzendaritza** | |
| Komunikabideekin komunikazio bide berriak lantzeko prozesua | Bai |

| | |
|---|---|
| **Funtzio Publikoko Zuzendaritza** | |
| Gobernantza ona GFAn lan egiten duten pertsonen artean ezagutarazi eta zabaltzeko prozesua | Bai |
| GFAn telelana ezartzeko aukerak aztertzeko prozesua | Bai |
| **Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza** | |
| Datu irekiak identifikatu eta GFAren Open Data Araua garatzeko prozesua | Bai |
| Webgune berria herritarren premietara egokitzen den aztertzeko prozesua | Ez |
| Herritarren Arretarako Zerbitzua nola antolatu behar den aztertzeko prozesua | Bai |
| **Kanpo Harremanetako Zuzendaritza** | |
| Nazioarteko euskal sarean Gipuzkoaren presentzia indartzeko prozesua | Ez |
| Kanpo harremanen Plan Estrategikoa garatzeko prozesua | Ez |
| Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Araua berrikusteko prozesua | Bai |
| Legealdi osorako Partaidetza Plana garatzeko prozesua | Bai |
| Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua sortzeko prozesua | Bai |
| Herritarren Partaidetzako Udalen Kontseilua sortzeko prozesua | Bai |
| **Gazteria eta Kirol Zuzendaritza** | |
| 18-30 urte arteko gazteentzako zerbitzua zehazteko prozesua | Bai |

| | |
|---|---|
| Emakumeen kirolaren ezaugarriak ezagutu eta etorkizuneko politikak zehazteko prozesua | Bai |
| **Kultura Zuzendaritza** | |
| Gordailu proiektua Gipuzkoa osoarekin partekatzeko prozesua | Ez |
| **Turismo Zuzendaritza** | |
| Turismo sektorearekin aplikazio teknologikoak garatzeko prozesua | Ez |
| **Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia** | |
| GFAk Gipuzkoako GKEekin lankidetzan jarduteko programa garatzeko prozesua | Bai |
| **Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza** | |
| GFAren zerbitzu karta partekatu eta ezagutarazteko prozesua | Ez |
| Gipuzkoako Zerbitzu Kontseilua sortzeko prozesua | Ez |
| **Lurralde Antolaketako Zuzendaritza** | |
| Pasaiako Badia Berritzeko Plan Berezia garatzeko prozesua | Bai |
| **Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza** | |
| Bizikletaren erabilera indartzeko prozesua, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluarekin lankidetzan | Ez |
| **Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza** | |
| Partaidetzako Aurrekontuak garatzeko prozesua | Bai |
| **Ogasun Zuzendaritza** | |
| Kontzertu Ekonomikoaren balioa azpimarratzeko prozesua | Ez |

| | |
|---|---|
| **Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritza** | |
| Euskal Nazioartekotze Partzuergoa bultzatzeko prozesua | Ez |
| **Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza** | |
| Gipuzkoako nekazaritzaren etorkizunari buruzko hausnarketa egiteko prozesua, nekazaritza sektorearekin batera | Bai |
| **Lurralde Orekako Zuzendaritza** | |
| Gipuzkoako Lurren Bankua aktibatzeko prozesua, betiere lurralde oreka manten-duz | Ez |
| **Ingurumen Zuzendaritza** | |
| Agenda 21en etorkizuneko erronkak antzemateko prozesua | Ez |
| Energia planen inguruan etorkizuneko politikak sektoreko eragileekin batera zehaz-teko prozesua | Ez |
| **Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza** | |
| Armundarai-Ibiur proiektuaren inguruan eztabaidatzeko prozesua | Ez |
| **Errepideen Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza** | |
| Donostian Carlos I-eko sarbideak aztertzeko prozesua | Ez |

**4. taula. Bestelako zabaltze jarduerak**

| ZABALDU | |
|---|---|
| **Ekintza** | **2015-2019 legealdian zehar gauzatu da ekintza?** (Bai/Ez) |
| Euskalgintzaren berrikuntza palankak 2016/2017 | Bai |
| Lehen sektorearen etorkizunari buruzko hausnarketa prozesua 2016 | Bai |
| Gure modura. Zarauzko gazteria zerbitzua zehazteko prozesua | Bai |
| Pasaiako portuaren zerbitzu eremuaren Hiri Antolaketa Plan Berezia: informazioa eta erkatzea | Bai |
| Kultura proiektuen neurketa sistema zehazteko partaidetza prozesua | Bai |
| Udalen Kontseilua martxan jartzeko prozesua | Bai |
| Partaidetza prozesua Lankidetzako Esparru Estrategikoa zehazteko | Bai |
| Partaidetzako Esparru Estrategikoa zehazteko prozesua | Bai |
| Itsasok udalerri izaera berreskuratzeko prozesua | Bai |
| Lehenengo sektorearen etorkizunari buruzko 2017/2018 partaidetza prozesua | Bai |
| Partaidetza prozesua, Gipuzkoako hainbat populazio taldetan jarduera fisikoa bultzatzeko | Bai |
| Gipuzkoako Foru Aldundian telelana martxan jartzeko partaidetza prozesua | Bai |
| Hirugarren Sektoreko Legea garatzeko partaidetza prozesua | Bai |
| AUZOLAB Pasaia. Pasaialdeko herritar panelak | Bai |
| EUTOKIA. Europar Batasunaren balioen inguruko belaunaldi arteko partaidetza prozesua | Bai |
| Gipuzkoako elkarteen eta GFAren arteko harremana hobetzeko partaidetza prozesua | Bai |
| Gobernu Onaren Foru Arauaren inguruko partaidetza prozesua | Bai |
| Lanean komunikazio estiloak egokitzeko partaidetza prozesua | Bai |

| | |
|---|---|
| Partaidetzaren 1/2010 Foru Araua berrikusteko partaidetza prozesua | Bai |
| Berrikuntza barnetik: Partaidetza Zerbitzuaren partaidetza prozesua | Bai |
| Haurren Erabakia | Bai |
| Adineko pertsonen kontseilua bultzatzeko partaidetza prozesua: Guztion Artean Ekiten | Bai |
| Euskararen erabileraren normalizaziorako partaidetza prozesua | Bai |
| Partaidetza prozesua memoria historikoaren esparruan | Bai |
| Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorraren inguruko hausnarketa prozesua | Bai |
| Garapen Jasangarriko Helburuak, GFAren politiketan | Bai |
| Biziaro | Bai |
| Herritarren laborategiak | Bai |

**5. taula. Errazte jarduketak**

| ERRAZTU | |
|---|---|
| **Ekintza** | **2015-2019 legealdian zehar gauzatu da ekintza?** (Bai/Ez) |
| Herritarren Partaidetzako Gida garatu | Bai* |
| Partaidetza Birtualeko Plataforma diseinatu eta ezarri | Bai** |
| Partaidetzako Aurrekontuen eredu berriak onartu | Bai |
| Barne Prestakuntza Plana abian jarri | Bai*** |
| Udaletako pertsonei zuzendutako Prestakuntza Programa onartu | Bai |
| Herritartasun aktiboa sustatu: Hiritar Eskola | Bai |
| Dirulaguntza ildo berriak ezarri udalentzat eta herritarren erakundeentzat | Bai |
| Sare sozialen erabilerari buruzko gida pedagogikoa osatu | Bai |
| Partaidetza prozesuen sistematizazioa egin | Bai |

**Herritarren Partaidetza prozesua osatzearen inguruko gida osatu.*
***Horren erabilera argitu Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiarekin.*
**** Ezin da esan Plan bat denik; hiru prestakuntza saio direla baizik.*

**6. taula. Hedatze jarduerak**

| HEDATU | |
|---|---|
| **Ekintza** | **2015-2019 legealdian zehar gauzatu da ekintza?** (Bai/Ez) |
| Herritarren Partaidetzari buruzko webgunea berritu | Bai |
| Hilean bi aldiz buletin elektroniko bat argitaratu | Bai |
| Herritarren partaidetzaren esparruko jardunbide egokiak balioetsi eta saritu udaletan eta herritar erakundeetan | Ez |
| Herritarren Partaidetzaren inguruko foroak, sareak eta topaguneak sustatu | Bai |
| Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzarako identitate propioa diseinatu | Bai |
| Herritarren Partaidetzari buruzko Gipuzkoako I. Kongresua antolatu | Bai |
| BIZIARO TOPAKETA 2018 antolatu | Bai |
| Herritarren Partaidetzarako Behatokia martxan jartzearen inguruko Azterlan-Diagnosia egin | Ez |

# 2. HERRITARREN PARTAIDETZAKO 2019-2023 PLANA

## a) AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoak (GFA) adierazten du legealdi honetako lehentasun handienetako bat elkarlaneko gobernantzaren eredua sendotzea dela, politika publikoak garatzeko eremu guztietara lankidetza eta baterako sorkuntza eraman ahal izateko: zuzendaritza politikoaren eta GFAko talde teknikoen arteko lankidetza gizarte antolatuarekin eta gainerako sistema instituzionalarekin. Entzute aktiboa, dimentsio etikoa indartu eta herritarren ahalduntze demokratikoa etengabe garatzea dira gure apustua.

Lehentasun horiei erantzuteko jasotzen den helburu estrategikoetako batek partaidetzarekin zuzeneko zerikusia du, **herritarren partaidetza kultura** lantzen jarraitzeko beharrarekin, herritarrekin harreman zuzena bultzatuz, partaidetzaren kultura zabalduz eta finkatuz.

Zehazki, GFAren 2020-2023 Plan Estrategikoan jasotako **17. helburu estrategikoak** herritarrekin harreman irekia finkatzea eta parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak irekitzea aipatzen du, eta, horretarako, GFAren politika publikoen prestaketan eta ebaluazioan herritarrek modu iraunkorrean parte hartzeko aukera txertatu nahi da.

Helburu estrategiko hori ildo estrategiko gisa proposatzen diren **helburu operatiboen** bidez garatuko da, adibidez, hauen bidez:

- Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu.
- Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta gauzatu.
- Partaidetza bideak zabaltzeko tresna eta ekipamendu digitalak sortu.
- Herritarren partaidetza bermatu eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egitura eta araudiak ezarri eta bultzatu.

## b) EGITURA

Agiri honetan proposatzen den Herritarren Partaidetzarako Plana maila hauetan egituratzen da:

1. **Ildo estrategikoak**: Herritarren Partaidetzarako 2019-2023 Planak eduki beharreko estrategia zehazten dute.
2. **Esparruak**: planteatutako ekintzak biltzen dituzten ezaugarri komunak identifikatzen dituzte, eta ekintzen helburua hobeto ulertzen laguntzen dute.
3. **Ekintzak:** 2019-2023 legealdian garatu nahi diren partaidetza jarduerak biltzen dituzte.
4. **Euskarri tresnak:** zeharka lan egiten dute, Herritarren Partaidetzako 2019-2023 Plana kudeatzen laguntzeko.

Lehenengo mailan, 2020-2023 legealdirako Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoan jasota dauden **ildo estrategikoak** identifikatuko ditugu; zehazki, honako hauek:

- **1. ildo estrategikoa. Herritarren partaidetzako estrategiak eta mekanismoak.** Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu.
- **2. ildo estrategikoa. Ezagutzaren kudeaketa eta dibulgazioa.** Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta gauzatu.
- **3. ildo estrategikoa. Berrikuntza digitala.** Partaidetza bideak zabaltzeko tresna eta ekipamendu digitalak sortu.
- **4. ildo estrategikoa. Organoak, egiturak eta araudiak.** Herritarren partaidetza bermatu eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egitura eta araudiak ezarri eta bultzatu.

Bigarren mailan, proposatutako ekintzak biltzen dira **esparruka**, hain zuzen ere lau ildo estrategiko horietako bakoitzaren barnean, jarraian zehaztutako moduan:

- **1. esparrua. Hausnarketa eta erabaki hartzea.** Hausnarketa egin eta erabakiak hartzeko prozesuak bultzatu.
- **2. esparrua. Partaidetzako aurrekontuak.** Partaidetzako aurrekontuetan berrikuntzak egin.
- **3. esparrua. Dirulaguntzak.** Finantzaketa eskaini GFAko zuzendaritzei, Administrazio Publikoei eta herritarren erakundeei, partaidetza prozesuak egin ahal izateko.
- **4. esparrua. Aholkularitza.** Laguntza eskaini erakundeei eta herritarrei, GFAren partaidetza prozesuak kudeatzeko.

- **5. esparrua. Ebaluazioa.** Azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauan xedatutako herritarren partaidetza sistema ebaluatu.
- **6. esparrua. Prestakuntza eta trebakuntza.** Erakundeei eta herritarrei prestakuntza ematea herritarren partaidetzaren inguruan eta Foru Aldundiak abian jartzen dituen partaidetza prozesuen funtzionamenduaren inguruan.
- **7. esparrua. Ezagutza, hedapena eta transferentzia.** Beharrezko tresnak herritarren esku jartzea, Gipuzkoan egiten ari diren partaidetza ekintzen berri izateko.
- **8. esparrua. Aitorpena.** Herritarren partaidetzako jardunbide egokiei aitorpena egitea.
- **9. esparrua. Berrikuntza.** Azpiegitura digitalak sortu.
- **10. esparrua. Organoak.** GFAk garatutako partaidetza prozesuak kudeatu, herritarren partaidetzako foru organoen bidez.
- **11. esparrua. Partaidetza esparruak.** Herritarren partaidetza sustatzeko espazioak eskaini.
- **12. esparrua. Araudien garapena.** Herritarren partaidetza prozesuek behar bezala funtzionatzeko arauak garatu.

Hirugarren mailan, legealdi honetarako proposatutako **ekintzak** zehaztu dira, hain zuzen ere Herritarren Partaidetzako Planaren funtsa osatzen dutenak (2. irudia).

Azkenik, hiru **euskarri tresna** aurkezten dira, hain zuzen ere ildo estrategiko guztietan zeharkako moduan funtzionatuko dutenak. Hauek dira tresna horiek: egikaritze egutegia, komunikazioa eta sozializazioa zein monitorizazioa.

2. irudian ageri da Planaren egitura osoa, ildo estrategiko, esparru, ekintza eta euskarri tresna guztiekin.

**2. irudia. Herritarren Partaidetzako 2019-2023 Planean proposatutako ildo estrategikoak, esparruak, ekintza eta euskarri tresna**

| ILDO ESTRATEGIKOA | ESPARRUA | EKINTZA |
| --- | --- | --- |
| **1. ildo estrategikoa.** **HERRITARREN PARTAIDETZAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK** Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu. | **1. esparrua.** HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA | **1. ekintza:** Partaidetza tresnak sistematizatu |
| | | **2. ekintza:** Partaidetzazko hausnarketa prozesuak |
| | | **3. ekintza:** Herri kontsultak |
| | | **4. ekintza**: Arau aurreproiektuak sortzea |
| | | **5. ekintza:** Herritar panelak |
| | | **6. ekintza:** Herri epaimahaiak |
| | | **7. ekintza:** Bestelako partaidetza prozesuak |
| | **2. esparrua.** PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK | **8. ekintza**: Aurrekontu Irekiak |
| | **3. esparrua.** DIRULAGUNTZAK | **9. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak |
| | | **10. ekintza:** Herritar erakundeentzako dirulaguntzak |
| | **4. esparrua.** AHOLKULARITZA | **11. ekintza:** Barne erakunde aholkularitza |
| | | **12. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza |
| | | **13. ekintza:** Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza |
| | **5. esparrua.** EBALUAZIOA | **14. ekintza:** Ebaluazioa |
| **2. ildo estrategikoa.** **EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA** **Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta gauzatu.** | **6. esparrua.** PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA | **15. ekintza:** Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola |
| | | **16. ekintza:** Erakundearen barne prestakuntza |
| | | **17. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza |
| | | **18. ekintza:** Partaidetzako profesionalaren profila eta gaitasunak zehaztu. |
| | | **19. ekintza:** Partaidetza akreditazioa |
| | | **20. ekintza:** Udako Ikastaro parte-hartzaileak |
| | **7. esparrua.** EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA | **21. ekintza:** Txostenak eta sistematizazioa |
| | | **22. ekintza:** Gidak |
| | | **23. ekintza:** Newsletterra |
| | | **24. ekintza:** Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa |
| | | **25. ekintza:** Artikulu akademikoak |
| | | **26. ekintza:** Ekitaldiak |
| | | **27. ekintza:** OGP Euskadin parte hartu |
| | | **28. ekintza:** Sare akademiko profesionalak |
| | | **29. ekintza:** Herritar Erakundeen Erregistroa |
| | | **30. ekintza**: 5/2018 Foru Arauko II. tituluan jasotako eskubideen berri eman |
| | **8. esparrua.** AITORPENA | **31. ekintza:** Sariak udalei eta erakundeei |
| | | **32. ekintza:** Sariak bestelako eragileei |

| ILDO ESTRATEGIKOA | ESPARRUA | EKINTZA |
|---|---|---|
| **3. ildo estrategikoa.** **BERRIKUNTZA DIGITALA** Partaidetza bideak zabaltzeko tresna eta ekipamendu digitalak sortu | **9. esparrua.** BERRIKUNTZA | **33. ekintza:** Plataforma kolaboratiboa |
| | | **34. ekintza**: Adimen Kolektiboko Software Sozial Laborategia |
| | | **35. ekintza:** Sare Sozialak |
| | | **36. ekintza:** "Blockchain" proiektu pilotua |
| | | **37. ekintza:** Entzute aktiborako gailuen prototipoak egin |
| | | **38. ekintza:** Herritarren partaidetzako Buru Moldeen tresnak |
| | | **39. ekintza:** Partaidetza kolektiboko Innogida |
| **4. ildo estrategikoa.** **ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIAK** Herritarren partaidetza bermatu eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egitura eta araudiak ezarri eta bultzatu. | **10. esparrua.** ORGANOAK | **40. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua |
| | | **41. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea |
| | | **42. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Laborategia |
| | | **43. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa |
| | | **44. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa |
| | **11. esparrua.** PARTAIDETZA ESPARRUAK | **45. ekintza**: Herritarren Partaidetzako Alorreko Espazioetarako Gobernantza Eredu bateratua zehaztu |
| | | **46. ekintza:** Elkarteen foroa |
| | | **47. ekintza:** GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa |
| | **12. esparrua.** ARAUDIEN GARAPENA | **48. ekintza:** Araudien garapena |
| | | **49. ekintza:** Kode etiko bat garatu |
| **EUSKARRI TRESNAK** | | **1. euskarri tresna:** Egikaritze egutegia |
| | | **2. euskarri tresna:** Komunikazioa eta sozializazioa |
| | | **3. euskarri tresna:** Monitorizazioa |

# 1. ildo estrategikoa. HERRITARREN PARTAIDETZAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

## Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu

| | |
|---|---|
| **1. esparrua.** HAUSNARKETA ETA ERABAKI HARTZEA | **1. ekintza:** Partaidetza tresnak sistematizatu |
| | **2. ekintza:** Partaidetzako hausnarketa prozesuak |
| | **3. ekintza:** Herri kontsultak |
| | **4. ekintza:** Arau aurreproiektuak sortzea |
| | **5. ekintza:** Herritar panelak |
| | **6. ekintza:** Herri epaimahaiak |
| | **7. ekintza:** Bestelako partaidetza prozesuak |
| **2. esparrua.** PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK | **8. ekintza:** Aurrekontu Irekiak |
| **3. esparrua.** DIRULAGUNTZAK | **9. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak |
| | **10. ekintza:** Herritar erakundeentzako dirulaguntzak |
| **4. esparrua.** AHOLKULARITZA | **11. ekintza:** Erakundearen barne aholkularitza |
| | **12. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza |
| | **13. ekintza:** Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza |
| **5. esparrua.** EBALUAZIOA | **14. ekintza:** Ebaluazioa |

# 1. IE. HERRITARREN PARTAIDETZAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu

## 1. esparrua. **HAUSNARKETA ETA ERABAKI HARTZEA**

**Helburua:** hausnarketa egin eta erabakiak hartzeko prozesuak bultzatu.

**1. ekintza:** Partaidetza tresnak sistematizatu
**2. ekintza:** Partaidetzako hausnarketa prozesuak
**3. ekintza:** Herri kontsultak
**4. ekintza:** Arau aurreproiektuak sortzea
**5. ekintza:** Herritar panelak
**6. ekintza:** Herri epaimahaiak
**7. ekintza:** Bestelako partaidetza prozesuak

# 1. ekintza. Partaidetza tresnak sistematizatu

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Herritarren Partaidetzako Foru Arauan xedatutako partaidetza tresna bakoitzaren lan prozesua garatu, sinplifikatu eta dokumentatu. Partaidetza tresnen kontroleko puntu kritikoak berrikusi eta hobetzeko mekanismoak zehaztuko dira. **Helburua:** partaidetza tresnak Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza prozesu bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea. |
| **Hartzaileak** |
| GFA, herritarrak, herritar erakundeak eta toki erakundeak. |
| **Aurrekariak** |
| Orain arte bi dirulaguntza ildoetako lan prozesuak sistematizatu dira (udalak eta elkarteak), baita partaidetzako hausnarketa prozesuenak ere. |
| **Konpromisoak** |
| A) Partaidetza tresnen lan prozesuak etengabe berrikusi.<br>B) Egokiak jotzen diren hobekuntzak txertatu.<br>C) Partaidetza tresnetan zehaztutako hobekuntzak ezagutzera eman. |
| **Adierazleak** |
| A) Sistematizatutako tresna kopurua.<br>Egindako berrikuspen kopurua.<br>Kontrol adierazleen ebaluazioa.<br>B) Txertatutako hobekuntza kopurua<br>C) Egindako komunikazio jarduera kopurua |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020-2021 |

# 2. ekintza. Partaidetzako hausnarketa prozesuak

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Gipuzkoan interesa edo eragina sortzen duten politika publikoko erabaki edo zehaztapenak, hartu beharreko erabakiaren inguruko eztabaida publikoa eta horren ezaugarriak ala jarduketa jakin bat kudeatzeko modua oinarritzat hartuta. Partaidetzako hausnarketa eragile hauek eskatuta garatu ahal izango da: Batzar Nagusiek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, toki erakundeek eta herritarrek. Hauek izango dira jarraitu beharreko pausoak: Protokoloa, Izen Ematea; Prozesuaren garapena; Emaitzak eta kontuak ematea; Erabakia; Ebaluazioa eta sistematizazioa. **Helburua:** Herritarrak politika publikoak zehazteko prozesuaren barnean sartzea. |
| **Hartzaileak** |
| Batzar Nagusiak, Gipuzkoako Foru Aldundia, toki erakundeak, herritar erakundeak eta Gipuzkoan bizi diren pertsonak. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian ekimen hauek egin ziren: partaidetzako hausnarketa prozesu bat hiri hondakinen inguruan (GHKPO) eta bestelako ezaugarridun 30 partaidetza prozesu baino gehiago. Politika publikoen esparruan herritarren partaidetzako tresnak garatzeko eskaerei erantzun zaie. |
| **Konpromisoak** |
| A) Gipuzkoako Foru Aldundiak, Batzar Nagusiek, toki erakundeek, herritar erakundeek eta Gipuzkoan bizi diren pertsonek hala eskatuta, partaidetzako hausnarketa prozesuak garatzeko eskariei erantzun. <br>B) Plan honetako hausnarketa prozesuak martxan jarri, GFAko zuzendaritzek eskatuta. <br>C) Prozesu bakoitzaren garapena ebaluatu. <br>D) Prozesuak politika publikoetan izan duen eragina ebaluatu. |
| **Adierazleak** |
| A) Gipuzkoako Foru Aldundiak, Batzar Nagusiek, toki erakundeek, herritar erakundeek eta Gipuzkoan bizi diren pertsonek hala eskatuta, abian jarritako partaidetzako hausnarketa prozesuen kopurua. <br>B) Beste zuzendaritzek eskatutako eta garatutako Partaidetza Planaren barnean txertatutako partaidetza prozesuen kopurua. <br>C) Prozesu bakoitzaren betetze maila eta horren inguruko asebetetze maila. <br>D) Politika publikoetan txertatutako emaitza kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

## 3. ekintza. Herri kontsultak

| **Definizioa** |
|---|
| Hartu beharreko erabaki publiko edo politika baten inguruan herritarren borondatea zein den ezagutzeko prozedurak. GFAk, bere eskumenen barne, herri kontsultak egin ahal izango ditu, bai oro har edo modu mugatuan. Hauek izan daitezke modalitateak: partaidetzako kontsultak, prozedura demoskopikoak, entzunaldi publikoak eta herritar panelak. Erreferenduma izango da salbuespena. Partaidetzako hausnarketa prozesu baten ondorio gisa, herri kontsulta bat egin ahal izango du GFAk. **Helburua:** herritarren borondatea ezagutzea erabaki publiko zehatzen inguruan. |
| **Hartzaileak** |
| Batzar Nagusiak, Gipuzkoako Foru Aldundia, toki erakundeak, herritar erakundeak eta Gipuzkoan bizi diren pertsonak. |
| **Aurrekariak** |
| Egindako kontsultak: Igeldo eta Ezkio-Itsaso banantzeko kontsultak. Egin ez diren eskaerak: Donostialdeko metroa. |
| **Konpromisoak** |
| A) GFAk, Batzar Nagusiek, herritar erakundeek eta Gipuzkoan bizi diren pertsonek sustatutako herri kontsulta eskaerei arreta eman, eta horiek egitea bidezkoa den ala ez ebatzi.<br>B) GFAk hala eskatuta kontsulta bat egiteko aukera aztertu.<br>C) Kontsulten garapena ebaluatu.<br>D) Kontsultaren eragina ebaluatu. |
| **Adierazleak** |
| A) Egindako herri kontsulta kopurua.<br>B) GFAren ekimenez kontsulta bat abian jartzeko aukera bideragarria den aztertzearen inguruko irizpena.<br>C) Emandako erantzun kopurua.<br>D) Kontsulta prozesuaren garapenaren inguruko asebetetze maila. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2022 (kanpo eskaeren arabera) |

# 4. ekintza. Arau aurreproiektuak sortzea

| **Definizioa** |
|---|
| GFAk abian jarritako araudi ekimenaren inguruan interesa duten pertsonen edo erakundeen proposamenak ezagutzeko partaidetza prozedurak. Salbuespena: zerga izaerako foru arauak. Foru arauen aurreproiektuak osatzeko prozesua abian jarri ahal izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak, herritar erakundeek eta Gipuzkoan bizi diren pertsonek hala eskatuta. **Helburua:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren araudi garapenean Gipuzkoako pertsonen edo erakundeen proposamenak txertatzea. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako Foru Aldundia, herritar erakundeak eta Gipuzkoan bizi diren pertsonak. |
| **Aurrekariak** |
| 5/2018 Foru Araua, Herritarren Partaidetzari buruzkoa eta 4/2019 Araua, Gobernu Onari buruzkoa indarrean jarri ziren. |
| **Konpromisoak** |
| A) GFAren legegintza egutegia urtero aztertu, aurreproiektu horien inguruko hausnarketa prozesurik egitea komeni den ala ez aztertzeko.<br>B) Arau aurreproiektu bereziki garrantzitsuak osatzeko prozedurak garatu.<br>C) Herritarren ekimen eskaerei erantzun, 5/2018 Foru Arauan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten arau aurreproiektuak osatzeko.<br>D) Legealdian zehar GFAko zuzendaritzek eskatutako arau aurreproiektuen prozedurak eta Partaidetza Plan honetan txertatutakoak abian jarri. |
| **Adierazleak** |
| A) Aurreproiektuen egokitasuna aztertu.<br>B) GFAren ekimenez egindako prozedura kopurua.<br>C) Herritarren ekimenez egindako prozedura kopurua.<br>D) GFAko zuzendaritzen ekimenez egindako prozedura kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020-2023 |

# 5. ekintza. Herritar panelak

| **Definizioa** |
|---|
| Erabaki politikoetan herritarren partaidetza informatua lortzeko partaidetza tresna, adituen Aholkularitza Taldearen laguntzarekin. Herritarren ikuspegia pertsona guztien bizitzari eragiten dioten arren, erabakiak hartzeko prozesuan oro har eremu tekniko-politikoa gainditzen ez duten alderdietan sartzean datza ekintza honek balioak.<br>Parte hartu nahi duten eta deialdi publikoari erantzun dioten guztien artean hautatutako 10 pertsonak osatuko dute panel bakoitza, askotariko ahots, adin, jatorri eta lanbideak dituen talde heterogeneoa lortzeko. Aztertu beharreko gaian zuzenean inplikatuta ez dauden herritarrak izan beharko dira, irizpide soziodemografikoen arabera hautatuak eta haien motibazioak kontuan hartuta. Informazio materiala irakurriko dute, lan saioetan iritziak aztertu eta trukatuko dituzte, gaian adituak diren eta inplikatuta dauden pertsonekin harremanetan jarriko dira eta hainbat galdera, kezka edo interes argituko dituzte. Prozesuan zehar, Aholku Taldeak paneleko partaideei lagunduko die egoera horiek ulertzeko ahaleginean, erabakiak ondo informatuta hartzeko gai izan daitezen. Horrela, praktika demokratikoak indartzen dira, bai ezagutza erabiltzeari dagokionez, bai erabaki politikoak hartzeari dagokionez. **Helburua:** erabaki politikoetan herritarren partaidetza informatua lortzea. |
| **Hartzaileak** |
| GFAren eskumen den gai jakinen baten inguruan eztabaidatzeko interesa duen edozein herritar. |
| **Aurrekariak** |
| Orain arte, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak ez ditu herritar panelak zuzenean kudeatu. |
| **Konpromisoak** |
| A) Legealdian zehar gutxienez 2 herritar panel egin.<br>B) Egindako prozesuan parte hartu duten pertsonen asebetetze maila balioetsi. |
| **Adierazleak** |
| A) Egindako panel kopurua.<br>B) Parte hartu duten pertsonen asebetetze maila. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020-2023 |

# 6. ekintza. Herri epaimahaiak

| **Definizioa** |
|---|
| Gai konplexuei buruzko erabakiak hartzean iritzi publikoaren ahotsa kontuan hartzea da metodo honen helburua. Herritar multzo txiki bat (15-30) ausaz hautatzen da, ordezkagarritasun irizpideekin, eta egun gutxi batzuetan gai publiko bat aztertzen du, behar duen informazio guztia eskura duela, eta adituei eta iturri gehigarriei kontsultatzeko aukera duela.<br>Partaideak talde txikietan eztabaida eta eztabaida egitera sar daitezke. Gaiak eta alternatibak aztertu ondoren, partaideek gomendioak egiten dituzte. Eztabaidatutako gaiak garrantzi politiko handiko gaiak izan ohi dira, eta erabakiak hartzeko prozesu tradizionala hobetzea eta legitimatzea dute helburu, politika publiko batek zentzu batean edo bestean hartutako erabaki baten alde onak edo txarrak zehatz-mehatz aztertuz. Landutako gaiak oso zabalak dira, besteak beste, lurraldekoak, hirikoak, ingurumenekoak, osasunekoak edo nekazaritzakoak. **Helburua:** azken erabakiak hartzen dituzten arduradun politikoei edo herritarrei hainbat gomendio ematea. |
| **Hartzaileak** |
| GFAren eskumen den gai jakinen baten inguruan eztabaidatzeko interesa duen edozein herritar. |
| **Aurrekariak** |
| Orain arte, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak ez du zuzenean herri epaimahairik kudeatu. |
| **Konpromisoak** |
| A) Herritarren epaimahaien teknikaren araberako prozesuren bat egitea legealdian zehar.<br>B) Egindako prozesuan parte hartu duten pertsonen asebetetze maila balioetsi. |
| **Adierazleak** |
| A) Egindako herri epaimahai kopurua.<br>B) Parte hartu duten pertsonen asebetetze maila. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020-2023 |

## 7. ekintza. Bestelako partaidetza prozesuak

| **Definizioa** |
|---|
| Partaidetzako ekintzak, politika publiko jakin bat aztertu eta erabakitzeko. Eztabaida bat sortzen da eraginpeko alderdiekin hartu beharreko erabakiari eta haren ezaugarriei buruz edo jarduketa jakin bat kudeatzeko moduari buruz. Partaidetza prozesua honako hauen ekimenez garatu ahal izango da: Gipuzkoako Foru Aldundia, toki erakundeak edo herritarrak. **Helburua:** politika jakin bati buruzko azterketa egin eta horren inguruko erabakiak hartzea. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako Foru Aldundia, toki erakundeak eta herritarrak. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian 30 partaidetza prozesu baino gehiago egin ziren. |
| **Konpromisoak** |
| A) Eskatzen diren partaidetza prozesuak gauzatu.<br>B) Alderdi interesdunen asebetetze maila ebaluatu. |
| **Adierazleak** |
| A) Egindako partaidetza prozesu kopurua.<br>B) Prozesuaren garapenaren inguruan interesa duten aldeen asebetetze maila. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020-2023 |

Jarraian ageri da zehaztuta Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritzek 2019-2023 legealdirako proposatutako partaidetza prozesuen zerrenda.

**7. taula. GFAko zuzendaritzek proposatutako partaidetza prozesuak**

| Zuzendaritza | Departamentua | Ekintza |
|---|---|---|
| Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoa | Diputatu Nagusia | Bizikidetza Aniztasunean plana |
| Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoa | Diputatu Nagusia | Ijito Komunitatearen Bizikidetza eta Integraziorako Foru Plana |
| Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa | Diputatu Nagusia | Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Foru Plana |
| Hizkuntza Berdintasuna | Diputatu Nagusia | Gipuzkoako hizkuntza premien inguruko partaidetza prozesua |
| Hizkuntza Berdintasuna | Diputatu Nagusia | Euskararen normalizazioari eta Gipuzkoako Herrialde Historikoaren hizkuntza beharrei buruzko erakundearteko partaidetza prozesua. |
| Hizkuntza Berdintasuna | Diputatu Nagusia | Gipuzkoako hizkuntza normalizazioko egungo planaren ebaluazio partaidetua. |
| Hizkuntza Berdintasuna | Diputatu Nagusia | Hizkuntza berdintasuneko plan estrategikoa prestatzeko partaidetza prozesua. |
| Prebentzioa, Su Itzalketa eta Salbamendua | Gobernantza | X.20 ibilgailua diseinatzeko partaidetza espazioa |
| Prebentzioa, Su Itzalketa eta Salbamendua | Gobernantza | Adinekoen alorreko sentsibilizaziora eta prebentziora zuzendutako partaidetza prozesua. |
| Prebentzioa, Su Itzalketa eta Salbamendua | Gobernantza | Prebentzioa, adineko pertsonei zuzenduta. |
| Araubide Juridikoko eta Pertsonen Kudeaketa | Gobernantza | Etorkizuneko Gipuzkoako Foru Aldundia diseinatu. |
| Araubide Juridikoko eta Pertsonen Ku- | Gobernantza | Gobernu Onaren 4/2019 Foru Arauaren inguruko partaidetzaren |

| Zuzendaritza | Departamentua | Ekintza |
|---|---|---|
| deaketa | | ebaluazioa |
| Gazteria | Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua | Gipuzkoako gazteriaren partaidetza laborategia |
| Gazteria | Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua | Gipuzkoan gazteentzako espazio bat diseinatzeko partaidetza prozesua |
| Nazioarteko Lankidetza | Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua | Gipuzkoako Lankidetza Plan Gida egiteko partaidetza prozesua |
| Kultura | Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua | Kultura eskola |
| Kirola | Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua | Gipuzkoako Eskola Kirolaren Foru Araua osatzeko partaidetza prozesua |
| Kirola | Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua | Gipuzkoako kirol esparruan talentua lantzeko etorkizuneko ekipamenduak diseinatu |
| Kirola | Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentua | 0-8 urte artean Jolas Libre eta Aktiboa sustatzeko hiri inguruneak diseinatu |
| Ingurumena | Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua | Klimarekin konprometitutako herritarren liga |
| Ingurumena | Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua | Gipuzkoako energia jasangarritasunerako 2050 estrategia |
| Kudeaketa eta Plangintza | Bide Azpiegituretako Departamentua | Hiriguneetako bide segurtasuneko politiken inguruko hausnarketa prozesua |
| Lurralde Antolaketa | Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua | Lurralde Plan Partzialen (LPP) berrikuspen partaidetua |
| Mugikortasuneko eta Garraio Publikoa | Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua | Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planaren berrikuspen partaidetua |
| Mugikortasuneko eta Garraio Publikoa | Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako | Gipuzkoako Garraio Publikoko emakida jakin batzuen berrikuntza |

| Zuzendaritza | Departamentua | Ekintza |
|---|---|---|
| | Departamentua | garatu |
| Nekazaritzako eta Lurralde Oreka | Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua | Lehen sektoreko politika estrategikoak zehaztu |
| Turismoa | Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunea | Turismoaren Plan Estrategikoa |
| Adinberri Erreferentzia Zentroa | Proiektu Estrategikoak | Zahartzearen esparruan bakardadearen inguruko estrategiak zehaztu |

# 1. IE. HERRITARREN PARTAIDETZAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu

## 2. esparrua. **PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK**

**Helburua:** partaidetzako aurrekontuetan berrikuntzak egin.

**8. ekintza:** Aurrekontu Irekiak

# 8. ekintza. Aurrekontu Irekiak

| **Definizioa** |
|---|
| Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurrekontu Irekiak ekimenaren helburua da Gipuzkoako gizartearen partaidetza aktiboa erraztu eta sustatzea, epe ertain eta luzera Gipuzkoak dituen erronka eta premia nagusiak identifikatzeko. **Helburua:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Partaidetza Aurrekontuen prozesuaren protokoloa berrikustea eta hobetzea, herritarrek parte hartzeko aukera izan dezaten eta, proposamenen bidez, Gipuzkoa hobea eraikitzen lagun dezaten. |
| **Hartzaileak** |
| 16 urtetik gorako pertsonak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatutakoak. Proiektu honetan haurren partaidetza txertatzea ere interesgarria izango litzateke. |
| **Aurrekariak** |
| Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat urte daramatza Partaidetzako Aurrekontu prozesuak kudeatzen; eta horietako bakoitza amaitzean, aztertu eta ebaluatu egiten dute, hurrengo urteko prozesuan hobekuntzak txertatzeko. |
| **Konpromisoak** |
| A) Herritarrei galdetu eta Partaidetzako Aurrekontuen prozeduraren bidez, erabaki Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu orokorreko gastu partiden portzentaje edo zenbateko bat zertarako erabiliko den**.**<br>B) Partaidetzako aurrekontuen prozesuaren garapena eta emaitzak ebaluatu, hobetzen jarraitzeko. |
| **Adierazleak** |
| A) Partaidetzako Aurrekontuen prozeduraren bidez erabakitako gastu partiden zenbatekoa.<br>B) Jasotako proposamen kopurua.<br>Proiektuak hautatzen parte hartu duten pertsonen kopurua.<br>Partaidetzako aurrekontuen hurrengo ekitaldian aplikatutako hobekuntza kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 1. IE. HERRITARREN PARTAIDETZAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu

## 3. esparrua. **DIRULAGUNTZAK**

**Helburua:** Finantzaketa eskaini GFAko zuzendaritzei, Administrazio Publikoei eta herritarren erakundeei, partaidetza prozesuak egin ahal izateko.

**9. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak

**10. ekintza:** Herritar erakundeentzako dirulaguntzak

# 9. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak

| **Definizioa** |
|---|
| Udalentzako eta erakunde txikientzako diru laguntzen ildoak, partaidetza prozesuak gauzatzeko, erakundeetako partaidetza egituratzeko edo prestakuntza ekintzak sustatzeko. **Helburua:** Partaidetzarekin, partaidetza kultura sustatzearekin edo Gipuzkoako udaletan edo erakunde txikietan parte hartzeko prestakuntzarekin lotutako jarduerak sustatzea. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako udalak eta erakunde txikiak. |
| **Aurrekariak** |
| Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza ekonomikoko ildo bat du 2012az geroztik, hain zuzen ere Gipuzkoako udalei zuzendutakoa, partaidetza prozesuak garatzeko. Aurten 3 epigrafe sortzearen aldeko apustua egin da dirulaguntza ildo beraren barruan, epigrafe bakoitzerako ebaluazio irizpideak egokituz: parte hartzeko prozesuak, parte hartzeko egitura eta parte hartzeko prestakuntza proposamenak. |
| **Konpromisoak** |
| A) Urteko laguntza ekonomikoak eman Gipuzkoako udalei, partaidetza prozesuak egin ditzaten, erakundeen partaidetza egitura dezaten edo prestakuntza ekintzak gara ditzaten.<br>B) Diru laguntzen deialdietan parte hartu duten pertsonen asebetetze maila orokorra balioetsi, eta hori 10 puntutik 7tik gorakoa izatea. |
| **Adierazleak** |
| A) Udaletatik jasotako eskaera kopurua/Onartutako eskaera kopurua<br>Diru laguntzen aurrekontua.<br>B) Diru laguntzen deialdietan parte hartu duten pertsonen batez besteko asebetetzea. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 10. ekintza. Herritar erakundeentzako dirulaguntzak

| **Definizioa** |
|---|
| Gipuzkoako herritar erakundeei zuzendutako dirulaguntza ildoak. Gipuzkoan partaidetza sustatzen duten elkarteentzako dirulaguntzak eskainiko ditu Foru Aldundiak. **Helburua:** partaidetzarekin, partaidetza kultura sustatzearekin edo partaidetzako prestakuntzarekin lotutako jarduerak sustatzea, edo herritarren erakundeek parte hartzeko egiten duten jarduera sustatzeko hitzarmenak sinatzea. |
| **Hartzaileak** |
| Herritar erakundeak. |
| **Aurrekariak** |
| 2012az geroztik dirulaguntza ildo bat dago, herritar erakundeei zuzendutakoa, partaidetza prozesuak garatu ahal izateko. |
| **Konpromisoak** |
| A) Herritar erakundeei urteko laguntza ekonomikoak eman.<br>B) Diru laguntzen deialdietan parte hartu duten pertsonen asebetetze maila orokorra balioetsi, eta hori 10 puntutik 7tik gorakoa izatea. |
| **Adierazleak** |
| A) Jasotako eskaera kopurua/onartutako eskaera kopurua.<br>Diru laguntzen aurrekontua.<br>B) Diru laguntzen deialdietan parte hartu duten pertsonen asebetetzearen batez besteko balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 1. IE. HERRITARREN PARTAIDETZAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu

## 4. esparrua. **AHOLKULARITZA**

**Helburua:** laguntza eskaini erakundeei eta herritarrei, GFAren partaidetza prozesuak kudeatzeko.

**11. ekintza:** Erakundearen barne aholkularitza
**12. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza
**13. ekintza:** Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza

# 11. ekintza. Erakundearen barne aholkularitza

| **Definizioa** |
| --- |
| Laguntza teknikoa eta metodologikoa GFAko zuzendaritzentzat. Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak laguntza eskainiko du partaidetza tresnak diseinatu, gauzatu, monitorizatu eta ebaluatzeko. **Helburua:** GFAko zuzendaritzei aholkularitza ematea, partaidetza prozesuak kalitate irizpideekin egin eta sortutako ezagutza sistematizatzeko. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritzak. |
| **Aurrekariak** |
| Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak 2012az geroztik eskaintzen die laguntza teknikoa GFAko zuzendaritzei. |
| **Konpromisoak** |
| A) Partaidetzako prozesuen estrategia diseinatzeko, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak GFAko beste zuzendaritza batzuetatik jasotzen dituen aholkularitza eskaeretatik gutxienez biri erantzun urtero.<br>B) Aholkularitza bakoitzaren asebetetze maila orokorra balioetsi eta hori 10etik 7 baino handiagoa izatea. |
| **Adierazleak** |
| A) GFAko zuzendaritzetatik jasotako aholkularitza eskaera kopurua.<br>GFAko zuzendaritzekin egindako aholkularitza eskaera kopurua.<br>B) Aholkularitza jasotzen duten pertsonen batez besteko asebetetze mailaren balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 12. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza

| **Definizioa** |
|---|
| Laguntza tekniko eta metodologikoa Gipuzkoako udalentzat eta erakunde txikientzat, partaidetza prozesuak diseinatzeko. **Helburua:** udalei eta erakunde txikiei hainbat esparrutan partaidetza prozesuak egiten laguntzea. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako udalak eta erakunde txikiak. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdietan aholkularitza tekniko eta metodologikoa eskaini zaie Gipuzkoako udalei. Gainera, 2017an sortutako Herritarren Partaidetzako Gipuzkoako Erakunde arteko Guneak laguntza, aholkularitza eta askotariko baliabideak eskaintzen dizkie udalerriei, horiek entzute aktiboko eta herritarren partaidetzako politikak modu eraginkorrean gara ditzaten. |
| **Konpromisoak** |
| A) Urtero Gipuzkoako udaletatik jasotako aholkularitza eskaeretako bi onartu, gutxienez, hain zuzen ere partaidetza prozesuen estrategia diseinatzeko.<br>B) Aholkularitza bakoitzaren asebetetze maila orokorra balioetsi eta hori 10etik 7 baino handiagoa izatea. |
| **Adierazleak** |
| A) Gipuzkoako udaletatik jasotako aholkularitza eskaera kopurua.<br>Gipuzkoako udalekin egindako aholkularitza kopurua.<br>B) Aholkularitza jasotzen duten pertsonen batez besteko asebetetze mailaren balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 13. ekintza. Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Ordenamendu Juridikoan herritarren partaidetzarako zehaztutako eskubideen inguruko laguntza tekniko eta metodologikoa ematea Gipuzkoako herritar erakundeei eta herritarrei. GFAk beharrezko laguntza emango du GFAko partaidetza prozesuetan parte hartzeko. Halaber, aholkularitza emango die erakundeei, partaidetza ekimenak martxan jartzeari eta finantzaketari dagokionez. Era berean, prestakuntza ekintzak egingo dira partaidetza kultura sustatzeko (herritarren eskubideak eta administrazio publikoen funtzionamendua zein betebeharrak). **Helburua:** herritar erakundeei eta herritarrei Foru Aldundiaren partaidetza prozesuetan parte hartzen laguntzea eta partaidetza kultura sustatzea. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako herritar erakundeak eta herritarrak. |
| **Aurrekariak** |
| 2015-2019 legealdian hainbat laguntza tekniko eman zitzaizkien herritar erakundeei. Hala ere, lan ildo hori ez zen behar bezala garatu eta sistematizatu. |
| **Konpromisoak** |
| A) Urtero Gipuzkoako herritar erakundeen eta herritarren eskutik jasotako aholkularitza eskaeretako bi onartu, gutxienez, hain zuzen ere partaidetza prozesuen estrategia diseinatzeko.<br>B) Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak kudeatutako dirulaguntza ildoari buruzko informazio eskaerei erantzun, telefono bidezko eta aurrez aurreko laguntza eskainiz (bilera bat gutxienez).<br>C) Aholkularitza bakoitzaren asebetetze maila orokorra balioetsi eta hori 10etik 7 baino handiagoa izatea. |
| **Adierazleak** |
| A) Jasotako aholkularitza eskaera kopurua.<br>B) Egindako aholkularitza kopurua.<br>C) Aholkularitza jasotzen duten pertsonen batez besteko asebetetze mailaren balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 1. IE. HERRITARREN PARTAIDETZAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

Gobernantza ireki eta kolaboratiboko eredua garatu eta bultzatu

## 5. esparrua. **EBALUAZIOA**

**Helburua:** Azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauan xedatutako herritarren partaidetza sistema ebaluatu.

**14. ekintza:** Ebaluazioa

# 14. ekintza. Ebaluazioa

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Legealdian zehar GFAk herritarren partaidetzaren inguruan egindako jarduera edo ekintzen ebaluazioa. Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak 2019-2030 Partaidetza Plana Ebaluatzeko tresna bat sortuko du. **Helburua:** herritarren partaidetzaren inguruan egindako ekintzen emaitzak ebaluatu, era horretan, hurrengo legealdian beharrezko aldaketak eta hobekuntzak egiteko. |
| **Hartzaileak** |
| GFAren barne kontrola eta herritarrak oro har. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian ez zen Partaidetza Planean proposatutako ekintzen ebaluaziorik egin. |
| **Konpromisoak** |
| A) 2019-2023 Herritarren Partaidetza Planean proposatutako ekintza guztiak ebaluatu.<br>B) Herritarren Partaidetza Planean proposatutako ekintzen % 80 egin. |
| **Adierazleak** |
| A) Ebaluatutako ekintzen % 100.<br>B) Egindako ekintzen ehunekoa. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

# 2. ildo estrategikoa. EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

| | |
|---|---|
| **6. esparrua.** PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA | **15. ekintza:** Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola |
| | **16. ekintza:** Erakundearen barne prestakuntza |
| | **17. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza |
| | **18. ekintza:** Partaidetzako profesionalaren profila eta gaitasunak zehaztu |
| | **19. ekintza:** Partaidetza akreditazioa |
| | **20. ekintza:** Udako Ikastaro parte-hartzaileak |
| **7. esparrua.** EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA | **21. ekintza:** Txostenak eta sistematizazioa |
| | **22. ekintza:** Gidak |
| | **23. ekintza:** Newsletterra |
| | **24. ekintza:** Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa |
| | **25. ekintza:** Artikulu akademikoak |
| | **26. ekintza:** Ekitaldiak |
| | **27. ekintza:** OGP Euskadin parte hartu |
| | **28. ekintza:** Sare akademiko profesionalak |
| | **29. ekintza:** Herritar Erakundeen Erregistroa |
| | **30. ekintza:** 5/2018 Foru Arauko II. tituluan jasotako eskubideen berri eman |
| **8. esparrua.** AITORPENA | **31. ekintza:** Sariak udalei eta erakundeei |
| | **32. ekintza:** Sariak bestelako eragileei |

# 2. IE. EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta gauzatu

## 6. esparrua. **PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA**

**Helburua:** erakundeei eta herritarrei prestakuntza eman herritarren partaidetzaren inguruan eta Foru Aldundiak abian jartzen dituen partaidetza prozesuen funtzionamenduaren inguruan**.**

**15. ekintza:** Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola
**16. ekintza:** Erakundearen barne prestakuntza
**17. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza
**18. ekintza:** Partaidetzako profesionalaren profila eta gaitasunak zehaztu
**19. ekintza:** Partaidetza akreditazioa
**20. ekintza:** Udako Ikastaro parte-hartzaileak

# 15. ekintza. Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola

## Definizioa

Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola eredua, topagune eta ikasgune gisa, gai publikoetan herritartasun aktiboagoa sustatzeko, baita Administrazio irekiagoa lortzeko ere, hain zuzen ere kontuak emateko eta etengabe hobetzeko prest dagoena. **Helburua:** Gipuzkoako gizartean partaidetza kultura eta kultura kolaboratiboa sustatu balio publikoa sortzeko orduan, hain zuzen ere lankidetzarako gaitasunak sustatzeko, baita herritarrek beren eskubideak eta administrazioen betebeharrak ezagutzeko, bai Gipuzkoa mailan, bai toki mailan.

Era berean, partaidetzako berrikuntzaren inguruan kalitate handiko prestakuntza eskaini nahi da, zehazki, kudeaketa eta errazte gaien inguruan, profesionalen eta zuzendari publikoen gaitasun eta abileziak indartuz.

**Helburua:**

- Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola zehaztu eta diseinatu, gaikuntza, indartze soziokomunikarioa eta Lurraldearen ezagutza oinarritzat hartuta.
- Herritarren partaidetzaren, beren eskubideen eta administrazio publikoen funtzionamenduaren eta betebeharren inguruko informazioa eta prestakuntza eman herritarrei.
- Erakundeek eskatzen dituzten aldaketen buru izateko, eta erronka sozioekonomikoei, globalizazioari eta iraultza digitalari aurre egiteko gai diren pertsonak prestatzea.
- Administrazio publikoko langileei herritarren partaidetzaren eta herritarren eskubideen inguruko prestakuntza ematea.
- Herritarren partaidetza sustatzea eta Gipuzkoako Lurraldean partaidetza ekintzak bultzatzea.

## Hartzaileak

- Herritar erakundeak, herritar antolatu gabeak (haurrak, helduak eta adinekoak).
- Udalak eta toki erakundeak.
- Foru eta toki Administrazioko langile politiko eta teknikariak.

## Aurrekariak

| |
|---|
| - Eibarko eta Donostiako Herritar Eskolak (2017) gazteentzat eta adinekoentzat.<br>- Gobernantza ireki eta kolaboratiboari buruzko online prestakuntza antolatu, Herritarren Partaidetzaren inguruko modulu bat duena.<br>- 2019an zehar Youth 2019 proiektua garatu da: bertan, zazpi ikastetxek parte hartu dute, foru politika publikoen edukia modu sakonagoan ezagutzeko.<br>- 2019 amaieran bilkura bat egin zen Gipuzkoan herritarren partaidetzaren inguruan lan egiten duten herritar erakundeekin, Partaidetzako Zuzendaritza-rekin lan espazio bat sortzeko interesik ote zuten ezagutzeko, eta aldi berean, beren prestakuntza premiak antzemateko.<br>- Foru Aldundiko zuzendaritzek bestelako prestakuntza motak egiten dituzte, herritar informatu eta arduratsuak sortzeko.<br>- OGP ekimenaren 4. konpromisoaren barnean, Herritartasun Eskola garatzen ari da. Hori erreferentzia gisa erabil daiteke GFAn aplikatzeko. |
| **Konpromisoak** |
| A) Lantalde bat sortu.<br>B) Herritartasunaren Gipuzkoako Eskolaren eredua diseinatu eta aplikatu.<br>C) Prestakuntza premien analisia egin.<br>D) Prestakuntza plan bat osatu, hartzaile ezberdinetara egokituz.<br>E) 2021. urtean proiektu pilotu bat egin, Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola abian jartzeko.<br>F) Erakundeek eskatzen dituzten aldaketen buru izateko, eta erronka sozioekonomikoei, globalizazioari eta iraultza digitalari aurre egiteko gai diren pertsonak prestatzea.<br>G) Prestakuntza jaso duten pertsonek 2023 duten asebetetze maila orokorra balioestea, eta hori 10etik 7 baino handiagoa izatea. |
| **Adierazleak** |
| A) Sortutako lantaldea.<br>B) Herritartasun Eskola martxan jartzea.<br>C) Antzemandako prestakuntza premia kopurua.<br>D) Aplikatutako prestakuntza plana.<br>E) Garatutako proiektu pilotua.<br>F) Aldaketen buru izateko gaitasunak dituzten pertsona prestatuen kopurua.<br>G) Prestakuntza jaso duten pertsonen batez besteko asebetetze mailaren balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020-2023 |

# 16. ekintza. Erakundearen barne prestakuntza

## Definizioa

GFAko langileen prestakuntza, partaidetza kultura garatzen sustatzeko. GFAk erakunde prestakuntzaren ibilbide orri bat ezarriko du eta Foru Aldundiko zuzendaritza bakoitzaren eskaera zehatzei erantzungo die. Open Eskola definitzeko prozesuan txertatuko da ekintza hori.

**Helburua:** Administrazioan bertan lan egiten duten pertsonei prestakuntza ematea, partaidetzarako tresna ezberdinen inguruko ezagutza izan dezaten eta lana beren kabuz egiteko gai izan daitezen, partaidetza teknika eta prozesuen bidez.

## Hartzaileak

Gipuzkoako Foru Aldundiko langile tekniko eta politikoak.

## Aurrekariak

Orain arte, barne prestakuntza saioak zuzendaritzei, zerbitzuburuei eta teknikariei zuzendutakoak izan dira, baina ezin da esan prestakuntza plan bat dagoenik.

## Konpromisoak

A) Ibilbide orri bat eskaini, partaidetza tresnen eta tekniken erabileran prestatzeko.
B) GFAko politikariei eta langileei urtean gutxienez 2 prestakuntza ikastaro eskaini.
C) Zuzendaritzek egindako prestakuntza eskaerei erantzun (barne dokumentu bidezko informazioa).
D) Prestakuntza jaso duten pertsonek duten asebetetze maila orokorra balioetsi, eta hori 10etik 7 baino handiagoa izatea.

## Adierazleak

A) Ibilbide orria sortu izana.
B) Foru Aldundiko politikariei eta langileei eskainitako prestakuntza jardueren kopurua.
C) Bestelako zuzendaritzetatik jasotako/erantzundako prestakuntza eskaeren kopurua.
D) Prestakuntza jaso duten pertsonen batez besteko asebetetze mailaren balioespena.

## Gutxi gorabeherako egutegia

2020/2021/2022/2023

# 17. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza

| **Definizioa** |
|---|
| Gipuzkoako udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza, herritarren partaidetzaren erakunde garapena sustatzeko. GFAk, Erakunde arteko Espazioarekin batera, herritarren partaidetza prozesuak sustatu eta gauzatzeko beharrezkoa den erakunde prestakuntzaren ibilbide orri bat ezarriko du. Herritartasunaren Eskolaren definizioaren barnean ekintza hori txertatzeko aukera aztertuko da. **Helburua:** Administrazioan lan egiten duten pertsonei prestakuntza ematea, partaidetza gaien inguruan ezagutza izan dezaten eta partaidetza politikak planifikatu, diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko gaitasuna izan dezaten. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako udalak eta erakunde txikiak. |
| **Aurrekariak** |
| Erakunde arteko Espazioa sortu zenetik, partaidetzaren inguruko prestakuntza ekintzak egin dira, bai izaera orokorrekoak, bai izaera espezifikokoak (monografikoak), bereziki Gipuzkoako ordezkaritza politiko berriei zuzendutakoak. Bilkurek helburu bikoitza zuten: a) Espazioa ezagutaraztea eta b) ordezkaritza politiko berria herritarren partaidetzara hurbiltzea. |
| **Konpromisoak** |
| A) Erakunde arteko Espazioarekin batera prestakuntzaren ibilbide orria zehaztu (definizioa eta plangintza estrategikoa).<br>B) Udaletako arduradun politikoei eta langileei gutxienez bi ikastaro eskaini.<br>C) Prestakuntza jaso duten pertsonek duten asebetetze maila orokorra balioetsi, eta hori 10etik 7 baino handiagoa izatea. |
| **Adierazleak** |
| A) Zehaztutako ibilbide orria.<br>B) Udaletako politikariei eta langileei eskainitako prestakuntza jardueren kopurua.<br>C) Prestakuntza jaso duten pertsonen batez besteko asebetetze mailaren balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 18. ekintza. Partaidetzako profesionalaren profila eta gaitasunak zehaztu

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Herritarren partaidetzako teknikariaren profil profesionala zein bere eskumenak zehaztu, baita partaidetza prozesuak behar bezala egiten direla bermatzeko tresnak ere. Prestakuntza premien diagnosi bat egingo da eta ibilbide orri bat ezarriko da, profesionalak heinean-heinean eskura ditzan eskumen horiek. Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskolan txertatzeko aukera aztertuko da (24. ekintza). Funtzio Publikoko Zuzendaritzarekin batera, irudi tekniko horren aitorpen profesionala egiteko tresna bat sortuko da. **Helburua:** Partaidetzako profesionalak bere funtzioak modu eraginkorrean egiteko tresnak ematea. |
| **Hartzaileak** |
| GFAko eta toki erakundeetako partaidetza teknikariak, ekimenean interesa dutenak. |
| **Aurrekariak** |
| Testuinguruaren araberako profil profesionalak eta funtzioak zehaztu dira. Baterako hausnarketari esker, errazagoa da sektorea ikusgarri bihurtu eta profesionalizatzea. Erakunde arteko Espazioa sortu zenetik, prestakuntza egin da. |
| **Konpromisoak** |
| A) Partaidetzako profesionalaren gaitasun profesionalen diagnosi bat egin.<br>B) Prestakuntzako ibilbide orri bat osatu.<br>C) Aitorpen profesionalerako tresna bat sortu.<br>D) "Prozesuaren emaitzarekin" dagoen asebetetze maila 10etik 7tik gorakoa izatea.<br>E) Profilaren definizioa erakunde errealitatera egokitzen den ebaluatu. |
| **Adierazleak** |
| A) Zehaztutako profil profesionala.<br>B) Prestakuntzarako osatutako ibilbide orria.<br>C) Sortutako aitorpen tresna.<br>D) Lantaldearen asebetetze maila.<br>E) Profesionalen adostasun maila. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2021-2023 |

# 19. ekintza. Partaidetza akreditazioa

| **Definizioa** |
|---|
| Herritartasun Eskola martxan jartzen denean eta partaidetzaren inguruko prestakuntza ibilbidean aurreikusitako prestakuntza ekintzak egin ondoren, ibilbide hori egin duten erakundeei/pertsonei prestakuntza hori aitortuko zaie. Dokumentu horrek egiaztatuko du erakunde/pertsona horrek herritarren partaidetzaren inguruko prestakuntza eman dezakeela, beharrezko bermeak betez. Prestakuntza online edo aurrez aurrekoa izango da eta gutxi gorabehera 60 orduko iraupena izango du. Martxan jarri baino lehen, Herritartasun Eskolak prestakuntza premien inguruko azterketa bat egingo du, esparru horretako adituekin batera, era horretan, prestakuntzaren edukia zein izango den erabakitzeko.<br>**Helburua:** partaidetzaren inguruko prestakuntza ematen duen erakundeak/pertsonak horretarako nahikoa ezagutza duela bermatu eta aitortzea. |
| **Hartzaileak** |
| Partaidetzaren inguruko prestakuntza ematen duten Gipuzkoako enpresak edo pertsonak. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian zehar ez zen antzeko ekintzarik egin. |
| **Konpromisoak** |
| A) Prestakuntza ibilbidea gainditzen duten pertsonen/erakundeen egiaztagiriak igorri.<br>B) Prestakuntza jaso duten herritar erakundeen eta pertsonen asebetetze maila orokorra balioetsi, eta hori 10etik 7 baino handiagoa izatea. |
| **Adierazleak** |
| A) Egindako prestakuntza kopurua.<br>Igorritako egiaztagiri kopurua.<br>Partaide kopurua.<br>B) Herritar erakunde/pertsona partaideen batez besteko balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2021/2022/2023 |

# 20. ekintza. Udako Ikastaro parte-hartzaileak

| **Definizioa** |
|---|
| Partaidetza handiagoko ereduak txertatzen dituen udako ikastaro eredu pilotu bat egitea. Horretarako, partaidetza sustatzen duen gela bat egokitu nahi da. Garatzeko hiru gai aztertu dira: zahartzea eta belaunaldi arteko hitzarmena, politika publikoak eta jasangarritasuna. Ikastaroak bi zatitan banatuta egongo dira: lehenengoak egitura klasikoa izango du (hitzaldiak + mahai ingurua) eta bigarrena, borondatezkoa izango dena, partaidetza saio bat izango da. **Helburua:** dagoen premiari erantzutea, baita partaideen eskaerari ere, ikastaroetan parte hartzeko aukera gehiago egon daitezen. |
| **Hartzaileak** |
| Udako Ikastaroetako partaideak. |
| **Aurrekariak** |
| Orain arte ez da horrelako formatuko Udako Ikastarorik egin. |
| **Konpromisoak** |
| A) Lehenbiziko urtean partaidetzako 3 ikastaro egin, bigarren urtean 6 eta hirugarren urtean 9.<br>B) Prestakuntza jaso duten pertsonek duten asebetetze maila orokorra balioetsi. |
| **Adierazleak** |
| A) Urtean egindako ikastaro kopurua.<br>Ikastaro bakoitzeko partaide kopurua.<br>B) Prestakuntza jaso duten pertsonen batez besteko asebetetze mailaren balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 2. IE. EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta gauzatu

## 7. esparrua. **EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA**

**Helburua:** beharrezko tresnak herritarren esku jartzea, Gipuzkoan egiten ari diren partaidetza ekintzen berri izateko.

**21. ekintza:** Txostenak eta sistematizazioa
**22. ekintza:** Gidak
**23. ekintza:** Newsletterra
**24. ekintza:** Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa
**25. ekintza:** Artikulu akademikoak
**26. ekintza:** Ekitaldiak
**27. ekintza:** OGP Euskadin parte hartu
**28. ekintza:** Sare akademiko profesionalak
**29. ekintza:** Herritar Erakundeen Erregistroa
**30. ekintza:** 5/2018 Foru Arauko II. tituluan jasotako eskubideen berri eman

# 21. ekintza. Txostenak eta sistematizazioa

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako udalek, erakunde txikiek eta elkarteek egindako partaidetza proiektuen inguruko txostenak osatu eta zabaltzea. Txosten horien hedapena digitalki eta paperean egingo da: proiektuotan parte hartu duten GFAko zuzendaritzetara, udaletara eta elkarteetara bidaliko dira. Gainera, Foru Aldundiak eta Erakunde arteko Espazioak herritarren partaidetzari buruz antolatutako ekitaldien emaitzak ere aurkeztuko dira. **Helburua:** Gipuzkoan herritarren partaidetzaren eta horren emaitzen inguruan egiten ari diren eta Foru Aldundiak finantzatutako edo diruz lagundutako prozesuen helburuak eta metodologia ezagutzera eman. |
| **Hartzaileak** |
| Foru Aldundiak, udalek eta elkarteek herritarren partaidetzaren inguruan egindako ekintzak ezagutzeko interesa duen publikoa: erakundeak, udalak, herritarrak, herritar erakundeak eta abar. |
| **Aurrekariak** |
| Herritarren Partaidetzako Zuzendariak egindako jardueren balantze bat jasotzen zuen memoria bat argitaratu zen aurreko legealdian.<br>Era berean, urtero liburu bat argitaratzen da, non udalek, herritar erakundeek eta GFAk berak egindako partaidetzako proiektuak modu sistematizatuan jasotzen diren. |
| **Konpromisoak** |
| A) Esparru ezberdinetan —probintzia, udal, asoziazionismo mailan— egindako eta Foru Aldundiak finantzatutako partaidetzako proiektuen esperientzien txostenak/liburuak/eskuliburuak argitaratu.<br>B) Txosten horiek ezagutzera eman. |
| **Adierazleak** |
| A) Partaidetza prozesuen inguruan argitaratutako txosten kopurua.<br>B) Egindako hedapen ekintzen kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 22. ekintza. Gidak

## Definizioa

Hainbat gida osatzea, bai formatu digitalean bai paperezko formatuan. Herritarren partaidetzako webgunean eta PARTEKATU plataforman egongo dira eskuragarri.

**Helburuak:**

- **Partaidetzarako tresnak aplikatzeko gida:** GFAren partaidetza prozesuak udaletan eta elkarteetan aplikatzen laguntzeko.
- **Protokoloak**: partaidetza prozesuen arauak ezartzeko.

## Hartzaileak

GFAko teknikariak, udalak, elkarteak eta eragile sozialak, antolatu gabeko gipuzkoar herritarrak eta gazteak.

## Aurrekariak

Aurreko legealdian zehar, hausnarketa prozesuetarako gida bat osatu zen eta partaidetza prozesuak egiteko protokoloak sortu ziren. 2019. urtean, gazteen eta Foru Aldundiaren arteko harremana eta lankidetza errazteko Gida Pedagogiko bat osatu zuen GFAk. Urte bereko urrian, partaidetza prozesuen ebaluazio gida bat osatu eta argitaratu zuen Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak.

## Konpromisoak

A) 2020-2023 aldian, 2 gida argitaratu, gutxienez**.**
B) Osatzen diren gidak ezagutzera eman.

## Adierazleak

**A)** Argitaratutako gida kopurua.
B) Ezagutzera emandako gida kopurua.

## Gutxi gorabeherako egutegia

2020-2023

# 23. ekintza. Newsletterra

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Herritarren partaidetzari buruzko newsletter bat argitaratzea GFAren partaidetzako webgunean eta Erakunde arteko Espazioaren Partekatu plataforman. Orain arte erabilitako formatu bera izango du newsletterrak.<br>**Helburua:**<br>- Foru Aldundiak, udalek eta elkarteek partaidetzaren inguruan egindako ekintzen berri ematea.<br>- Probintziarako interesgarriak izan daitezkeen ekintzen berri ematea herritarrei.<br>- Euskadin, Espainian eta nazioartean partaidetzaren inguruan garatzen ari diren esperientzien berri ematea.<br>- Foru Aldundiaren webgunearen posizionamendua hobetzea. |
| **Hartzaileak** |
| Herritarren partaidetzan interesa duten pertsonak eta erakundeak. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdietan hainbat newsletter argitaratu ziren GFAren herritarren partaidetzako webgunean eta Partekatu plataforman. Era berean, newsleterrak udaletara eta elkarteetara ere bidali dira. |
| **Konpromisoak** |
| A) Newsletterra hiru hilean behin argitaratu. |
| **Adierazleak** |
| A) Argitaratutako newsletter kopurua.<br>Argitaratutako albiste kopurua.<br>Newsletterrera egindako bisitaldi kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 24. ekintza. Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Mapa bat egitea, datu base modura, non GFAren departamentuak eta Gipuzkoako udalak eta elkarteak garatu dituzten edo garatzen ari diren partaidetza esperientzia/proiektu guztiak biltzen diren (proiektuaren izena, helburuak, faseak, partaideak, aurrekontua, prozesuaren ebaluazioa eta abar). **Helburua:** partaidetza proiektuen inguruko esperientzien gordailu izatea, non beharrezko informazioa ematen den, kontsultatu ahal izateko eta antzeko proiektuak egiteko erabakiak hartzen laguntzeko. |
| **Hartzaileak** |
| GFAko zuzendaritzak, udalak, elkarteak eta herritarrak oro har. |
| **Aurrekariak** |
| Udalen kasuan, Erakunde arteko Espazioa dago, besteak beste, partaidetza proiektuaren inguruko esperientziak partekatzeko. Elkarteen kasuan, orain arte bi topaketa egin dira: horietan, elkarte bakoitzak bere proiektuak aurkeztu ahal izan du eta iritziak trukatu ahal izan dituzte. GFAn, departamentu arteko espazio bat dago (Departamentu Arteko Batzordea) non herritarren partaidetzako proiektuak ezagutzera eman eta trukatzen diren zuzendaritza ezberdinen artean. Urtero, GFAk txosten bat egiten du, GFAk toki mailan, herritar erakundeen esparruan eta foru esparruan GFAk finantzatutako proiektuak modu sistematizatuan biltzeko. |
| **Konpromisoak** |
| A) Gipuzkoa osoaren mapa bat egin eta GFAk, udalek eta elkarteek abian jarritako partaidetza proiektuen esperientziekin datu base bat osatu.<br>B) Datu basea eguneratuta mantendu. |
| **Adierazleak** |
| A) Proiektu kopurua, kategoriaren, eskualdearen eta udalerriaren arabera.<br>B) Urteko eguneratze kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2021/2022/2023 |

# 25. ekintza. Artikulu akademikoak

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Kongresu eta jardunaldietan herritarren partaidetzaren inguruko artikulu akademikoak aurkeztea. Artikulu akademikoak idatzi eta argitaratuko dira herritarren partaidetzaren eta GFAk gai horren inguruan abian jarritako ekintzen inguruan. Alde batetik, ereduen inguruko artikuluak argitaratuko dira, eta emaitzen ingurukoak, bestetik. **Helburua:** GFAk partaidetzaren eremuan abian jarritako ekimenak mundu akademikoan ezagutzera ematea. |
| **Hartzaileak** |
| Publiko akademikoa. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian zehar ez zen antzeko ekintzarik egin. |
| **Konpromisoak** |
| A) Urtean artikulu akademiko bat argitaratu. |
| **Adierazleak** |
| A) Argitaratutako artikulu akademikoen kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 26. ekintza. Ekitaldiak

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Herritarren partaidetzaren inguruko topaketetan parte hartzea eta horiek antolatzea. Legealdian zehar 2 ekitaldi antolatuko dira. GFA, udalak eta elkarteak partaidetzaren inguruan egiten ari diren ekintzak aurkeztuko dira, harreman sarea zabalduko da, beste erakundeen esperientzien berri emango da, adituen eta herritarren iritziak entzungo dira eta abar. Gai posibleak: Partaidetza bitarteko digitalen bidez; Partaidetza soziokomunitarioa / Berrikuntza soziala; Erakunde partaidetza.<br>**Helburua:** Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzaren eta Erakunde arteko Espazioaren presentzia bermatu GFAren eta udalen eskumen diren gaiarekin zerikusia duten foroetan, topaketetan, kongresuetan eta abar. Toki, Espainia eta nazioarte mailan partekatu eta ezagutarazi Gipuzkoa eta Euskadi mailan arrakastaz garatzen ari diren esperientziak. |
| **Hartzaileak** |
| Tokiko, Espainiako eta nazioarteko publikoa (herritarrak, adituak, erakundeetako ordezkariak eta abar). |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian, Herritarren Partaidetzaren eskumen diren gaiekin zerikusia duten hainbat ekitalditan parte hartu zuen GFAk. Gainera, Herritarren partaidetzaren Gipuzkoako Lehenengo Kongresua, *Biziaro* jardunaldia eta *Haurren Erabakia* ekitaldia antolatu zituen. |
| **Konpromisoak** |
| A) Legealdian zehar, bi ekitaldi antolatu, gutxienez.<br>B) Urtero, bi ekitalditan parte hartu, gutxienez.<br>C) Ekitaldi bakoitzaren asebetetze maila orokorra balioetsi eta hori 10etik 7 baino handiagoa izatea. |
| **Adierazleak** |
| A) Antolatutako ekitaldi kopurua.<br>Ekitaldi bakoitzeko partaide kopurua.<br>B) Parte hartutako ekitaldi kopurua.<br>C) Parte hartu duten pertsonen batez besteko balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022 |

# 27. ekintza. OGP Euskadin parte hartu

| **Definizioa** |
|---|
| OGP (Open Government Partnership / Gobernu Irekiaren Aliantza) mundu mailako ekimen aldeazniztuna da, gobernuen konpromiso zehatzak lortu nahi dituena, hain zuzen ere gardentasuna sustatzeko, herritarrak gaitzeko, ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta teknologia berriak gobernagarritasuna indartzeko aprobetxatzeko. Inplikatutako erakunde guztiek hartutako 5 konpromiso garatu eta aplikatzean datza planak (Kontuak ematea Aginte Planen bidez, Open data Euskadi eta Linked Open Data; herritarren partaidetzako i-Lab Euskadin; Open Eskola – Herritarren Eskola Irekia; Osotasuneko Euskal Sistema), eta horiek guztiak 2018-2020 epean gauzatu eta ebaluatu behar dira. GFAko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak modu aktiboan parte hartzen du, baterako lider edo kolaboratzaile gisa, 3. konpromisoan (herritarren partaidetzako i-Lab) eta 4. konpromisoan (Open Eskola). **Helburua:** OGP Euskadi Plana Gipuzkoan aplikatu eta betearaztea. |
| **Hartzaileak** |
| Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzako zein Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendaritzako langileak, udaletako partaidetza teknikariak, herritarren partaidetzaren inguruko adituak, herritarren erakundeak eta herritarrak oro har. |
| **Aurrekariak** |
| OGPko kide izateko, Gobernu Irekiaren Deklarazio bat babestu behar dute herrialde partaideek, eta herri kontsulta bidez garatutako Ekintza Plan bat ere entregatu behar dute. 2018 hasieran, mundu maila osoan, eskualdea mailako 5 gobernu berri txertatzeko aukera zabaldu zuen sareak. Aukera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak, 3 Foru Aldundiek eta 3 hiriburuek (Innobasquek babestuta) ahaleginak batzea erabaki zuen. Lehenbiziko ekintza hau izan zen: 2018-2020 baterako Ekintza Plana osatu eta aurkeztea. 2018an hasi zen ekintza plana. |
| **Konpromisoak** |
| A) OGP Euskadi Plana garatzen jarraitu, lan ildo berriak txertatuz.<br>B) OGPk zehaztutako helburuak bete. |
| **Adierazleak** |
| A) Garatutako proiektu kopurua.<br>B) OGPk markatutako emaitzen lorpenaren adierazleak. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 28. ekintza. Sare akademiko profesionalak

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Herritarren partaidetzarekin zerikusia duten Espainiako eta nazioarteko sareetan parte hartzea (OIDP, NOVAGOP, CGLU eta abar). **Helburua:** toki, Espainia eta nazioarte mailan partekatu eta ezagutarazi Gipuzkoa mailan arrakastaz garatzen ari diren esperientziak. |
| **Hartzaileak** |
| Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzako langileak GFAko bestelako zuzendaritzetako langileak eta Erakunde arteko espazioan interesa duten pertsonak. |
| **Aurrekariak** |
| Bere gaiarekin zerikusia duten sareetako (OGP, Q-epea, OIDP, NOVAGOP eta abar) bazkide da Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusia. |
| **Konpromisoak** |
| A) Legealdiaren laur urtetan zehar, modu aktiboan parte hartu partaidetzari buruzko bi saretan, gutxienez.<br>B) Bere helburuen eta jardueren berri eman. |
| **Adierazleak** |
| **A)** Foru Aldundiak modu aktiboan parte hartzen duen herritarren partaidetzako sareen kopurua.<br>Foru Aldundiak modu aktiboan parte hartzen duen sareen ekintza kopurua.<br>B) Sare ezberdinak erakundeei aurkezteko egindako bilkura kopurua**.** |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 29. ekintza. Herritar Erakundeen Erregistroa

| **Definizioa** |
|---|
| Modu telematikoz erregistratuta dauden herritar erakundeei jakinaraztea herritarren partaidetzaren inguruan eskuragarri dagoen informazioa. Erakundeen artean esperientzia trukea egiteko espazioak sustatuko dira.<br>**Helburua:** herritarren partaidetza arautzen duen araudia aldatzen duen edozein aurreproiekturen edo foru arauan zehaztutako edozein partaidetza prozedura hastearen inguruko informazioa ematea, besteak beste, foru arauen aurreproiektua osatzeko prozedurak abian jartzea, Partaidetza Programa osatzea edo gizartean ala Lurralde Historikoan eragin handia duen beste edozein kudeaketa prozedura. |
| **Hartzaileak** |
| Beren jarduerak Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatzen dituzten herritarren erakundeak, eta herritarren partaidetzan interesa dutenak. |
| **Aurrekariak** |
| Uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arau bidez 2010. urtean sortu zen organoa eta harrez geroztik funtzionatzen jarraitu du, baina ez horrelako ezaugarriak dituen datu base batek eskatutako kudeaketa eta eguneratze mailarekin. 5/2018 Foru Arau berriak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak, erregistratuta dauden herritarren erakundeei bakarrik ematen dizkie informazioa emateko funtzioak. |
| **Konpromisoak** |
| A) Foru Aldundiak abian jarritako edozein ekimeni buruzko informazioa bidali erregistratutako herritar erakunde guztiei.<br>B) Herritarren erakundeen asebetetze maila orokorra balioetsi. |
| **Adierazleak** |
| A) Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan izena emandako herritarren erakundeei bidalitako komunikazio kopurua.<br>B) Herritarren erakundeen batez besteko balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 30. ekintza. 5/2018 Foru Arauko II. tituluan jasotako eskubideen berri eman

| **Definizioa** |
|---|
| Azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauak xedatzen du pertsona guztiek oro har, Foru Aldundiak pertsona guztiei bermatuko diela bere departamentuetako edozeinetan tramitazio bidean dauden erabakitze prozesuei buruzko informazio eskubidea eta horretarako baliabide tekniko egokiak jarriko dituela doan, artxibategietan, liburutegietan, komunikazio zentroetan, auzo etxeetan eta zentro kultural publikoetan, herritarrentzako informazio bulegoetan eta egoki iritzitako beste edozein lekutan. **Helburua:** Herritarrek 5/2018 Foru Arauko II. tituluan xedatutako eskubideak erabili ahal izatea (parte hartzeko eskubidea, informazio eskubidea, eskaera eskubidea, ekimen eskubidea). |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako herritarrak oro har. |
| **Aurrekariak** |
| Orain arte ez da horrelako lan ildorik garatu. |
| **Konpromisoak** |
| A) Arauan xedatutako eskubideak ezagutzera emateko dibulgazio ekintzak identifikatu eta adostu.<br>B) Dibulgazio ekintzak egin. |
| **Adierazleak** |
| A) Identifikatutako dibulgazio ekintzen kopurua**.**<br>B) Egindako dibulgazio ekintzen kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2021/2022/2023 |

# 2. IE. EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

Ezagutza sortzeko jarduerak diseinatu eta gauzatu

## 8. esparrua. **AITORPENA**

**Helburua:** herritarren partaidetzako jardunbide egokiei aitorpena egitea.

**31. ekintza:** Sariak udalei eta erakundeei
**32. ekintza:** Sariak bestelako eragileei

# 31. ekintza. Sariak udalei eta erakundeei

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Urteko aitorpen ekonomikoa bi udal eta bi erakunderi, herritarren partaidetzaren arloan esperientzia berriak garatzeagatik. Urtero deialdi bat zabalduko dute, eta bertan Gipuzkoako udalek eta erakundeek sarietara aurkezteko aukera izango dute. Epaimahai batek erabakiko du nor den irabazlea. **Helburua:** Udalak eta erakundeak herritarren partaidetzarako ekimen gehiago sustatzera bultzatzea, udalari eta erakundeari irudi bat ematea eta erakundeak herritarren aurrean sinesgarritasun handiagoa lor dezan laguntzea. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako udalak eta erakundeak. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian ez da antzeko ekintzarik egin, Gipuzkoako udalek ekitaldietan dituzten jardunbide egokiak aurkezteaz eta herritarren partaidetza bultzatzeko diru laguntzen ildoa balioetsi eta ezartzeaz harago. |
| **Konpromisoak** |
| A) Urtero bi udal saritu.<br>B) Urtero bi herritar erakunde saritu. |
| **Adierazleak** |
| A) Deialdira aurkeztutako udalak.<br>B) Deialdira aurkeztutako herritar erakundeak. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2021/2022/2023 |

# 32. ekintza. Sariak bestelako eragileei

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Aitorpen ekonomikoa udalak eta erakundeak ez diren bestelako eragileei, herritarren partaidetzaren arloan esperientzia berriak garatzeagatik. Epaimahai batek erabakiko du nor den irabazlea. **Helburua:** Gipuzkoako herritarrek bultzatzea Aldundiaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzearekin lotutako herritarren partaidetzako ekimenak sustatzera. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako herritarrak. |
| **Aurrekariak** |
| 2019an, GFAk, Mondragon Unibertsitatearekin batera, nerabeekiko komunikazioa lantzeko gida pedagogiko bat sortu zuen, partaidetza prozesu bat gauzatu ondoren. Prozesu horretan, gazteek gogoeta egiten zuten GFArekin zuten harremanari buruz. |
| **Konpromisoak** |
| A) Eragile ezberdinak saritu, partaidetzaren esparruan proposamen/esperientzia berritzaileak egiteagatik. |
| **Adierazleak** |
| A) Abian dagoen deialdi kopurua.<br>Jasotako proposamen kopurua.<br>Emandako sari kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2021/2022/2023 |

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

# 3. ildo estrategikoa. BERRIKUNTZA DIGITALA.

## Partaidetza bideak zabaltzeko tresna eta ekipamendu digitalak sortu

| | |
|---|---|
| **9. esparrua.** BERRIKUNTZA | **33. ekintza:** Plataforma kolaboratiboa |
| | **34. ekintza:** Adimen Kolektiboko Software Sozial Laborategia |
| | **35. ekintza:** Sare Sozialak |
| | **36. ekintza:** “Blockchain” proiektu pilotua |
| | **37. ekintza:** Entzute aktiborako gailuen prototipoak |
| | **38. ekintza:** Herritarren partaidetzako Buru Moldeen tresnak |
| | **39. ekintza:** Herritarren partaidetzako Innogida |

# 3. IE. BERRIKUNTZA DIGITALA

## Partaidetza bideak zabaltzeko tresna eta ekipamendu digitalak sortu

## 9. esparrua. **BERRIKUNTZA**

**Helburua:** azpiegitura digitalak sortu.

**33. ekintza:** Plataforma kolaboratiboa
**34. ekintza:** Adimen Kolektiboko Software Sozial Laborategia
**35. ekintza:** Sare Sozialak
**36. ekintza:** “Blockchain” proiektu pilotua
**37. ekintza:** Entzute aktiborako gailuen prototipoak
**38. ekintza:** Herritarren partaidetzako Buru Moldeen tresnak
**39. ekintza:** Herritarren partaidetzako Innogida

# 33. ekintza. Plataforma kolaboratiboa

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Azpiegitura digital tekniko eta funtzionalki kaudimenduna eraikitzea, edozein komunitateri irekia, inklusiboa eta herritar guztientzat eskalagarria, herritarrek parte hartzeko tresnak eta tresnak garatzeko. **Helburua:** proiektua modu irekian, lankidetzan eta barneko eta kanpoko eragileekin kontrastatzeko moduan garatu. Azpiegitura erakunde harremaneko «sistema bakar» bihurtzea. |
| **Hartzaileak** |
| GFA, Gipuzkoako gainerako administrazioak, erakunde sozialak, edozein motatako elkarteak, herritarrak. |
| **Aurrekariak** |
| 2011-2015 legealdian, herritarren partaidetzarako bide anitzeko tresna digital bat garatu zen. |
| **Konpromisoak** |
| A) Diziplina anitzeko lantalde bat osatu eta GFAren egungo tresna aztertu (bideragarritasun proposamena).<br>B) Etorkizun prototipoa zehaztu.<br>C) Proiektuaren garapen teknikoa egin.<br>D) Azpiegituraren pilotaje bat egin.<br>E) Azpiegitura digitala gizarteratu.<br>F) Tresna aplikatu. |
| **Adierazleak** |
| A) Tresneria sortu eta diagnostikoa egin (Bai/Ez).<br>B) Etorkizun prototipoaren definizio funtzionala.<br>C) Proiektuaren garapen teknikoa.<br>D) Azpiegituraren pilotajea.<br>E) Egindako gizarteratze jarduera kopurua.<br>F) Proiektuaren aurrerapen maila. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020-2023 |

# 34. ekintza. Adimen Kolektiboko Software Sozial Laborategia

| **Definizioa** |
|---|
| *Software Sozialeko Laborategia,* eskala handiko Adimen Kolektiboko prozesuak kudeatzeko erabilgarri dauden tresnak eta aplikazioak monitorizatu, probatu eta mapeatzen dituena. **Helburua:** 150 pertsonak baino gehiagok parte hartzen duten Adimen Kolektiboko ekimenak kudeatzeko balio duten aplikazio eta tresna teknologikoen gutxieneko kopuru bat sakon inbentariatzea (zentzu kritikoz eta modu neutral eta independentean, marka eta interes komertzialetatik kanpo), agregazio kolektiboko prozesuak "efizienteagoak" eta "efizienteagoak" izan daitezen, eskalatuak horien kudeaketa asko zailtzen duenean. E*skalatuaren erronkari* helduko diogu, hain zuzen ere, horixe delako Herritarren Partaidetzaren moduko zuzendaritzak duen erronka, milaka pertsona inplikatzen dituzten auzo, hiri eta eskualdeetan prozesuak bultzatu behar dituena. Kopurua handitze horrek eskakizun kualitatibo desberdinak sortzen ditu prozesuaren kudeaketan, eta gailu teknologiko egokiak erabiltzearen garrantzia areagotzen du. |
| **Hartzaileak** |
| GFA, beste administrazioak, elkarteetan parte hartzen duten herritarrak eta elkarteetan parte hartzen ez duten herritarrak. |
| **Aurrekariak** |
| Orain arte ez da horrelako ezer egin. Guk dakigula, behintzat, ez dago horrelako laborategirik Espainiako Estatuan. |
| **Konpromisoak** |
| A) Aplikazio eta tresna teknologikoak inbentariatu eta berrikusi, Adimen Kolektiboko ekimenak kudeatzeko.<br>B) Webgune bat egin, *app* interaktibo motako eduki dinamikoekin.<br>C) Ikerketaren ondorioen txostena egin: **"Prozesu parte-hartzaileetan eskalatua kudeatzeko teknologiak".** |
| **Adierazleak** |
| A) Monitorizatutako aplikazio edo tresna kopurua.<br>B) Sortutako webgunea.<br>C) Aurkeztutako txostena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020-2021 |

# 35. ekintza. Sare Sozialak

| **Definizioa** |
|---|
| Sare sozialak herritarrekin komunikatzeko bide nagusietako bat gisa erabiltzea. Sare sozialen funtzionamendu eta kudeaketa plan bat garatu beharko da. Sare sozialen erabilera bultzatuko da, herritarren eta Aldundiaren arteko bi norabideko komunikazioa lortzeko. Erantzuteko ordutegia aldez aurretik ezarrita egongo da. Sare bakoitzean horien erabilera zuzenari buruzko araudi bat argitaratuko da. **Helburua:** publiko zabalago batengana iritsi eta komunikazio modu berrietara egokitu. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako herritarrak. |
| **Aurrekariak** |
| Gipuzkoako Foru Aldundiak *Twitter*, *Instagram* eta *Facebook* ditu. Hala ere, ez dago komunikaziorik Foru Aldundiaren eta herritarren artean. |
| **Konpromisoak** |
| A) Sare sozialen erabilera sustatu, herritarren partaidetza errazteko. |
| **Adierazleak** |
| A) Partaidetza prozesu bakoitzeko argitalpen kopurua.<br>Sare sozial bakoitzera egindako bisiten kopurua.<br>Iruzkin eta erantzun kopurua sare sozial bakoitzean. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 36. ekintza. “Blockchain” proiektu pilotua

| **Definizioa** |
|---|
| Bide berriak bilatu behar dira Herritarren Partaidetza terminoa gainditzeko eta beste batzuk erabiltzeko, hala nola kontuak ematea, konfiantza sortzea, herritarrekin eta herritarren artean harremanak izateko modu berriak.<br>Gizarte Berrikuntza eta Herritarren Partaidetza uztartzeko beharra sektore publikoan landu beharreko erronka da, eta funtsezko elementua antolakundeen kudeaketan aurrera egiteko. Administrazio publikoek «erabiltzailearen esperientzia», interes taldeekiko harremana edo plataforma birtual berriak erabiltzeak edo sare sozialak gero eta gehiago erabiltzeak funts berritzailea du administrazioak herritarrekin duen harremanean. Hirietan «komunitatea sortzeko» modu berriak ezartzeak beharrezkoa egiten du, era berean, administrazioak tresna baliogabeak hartzea, bai herritarrak jada erabiltzen ari diren tresnak, bai publikoa ez den beste gizarte tresna batzuk, bai administrazio «berriei» eta, beraz, administrazioa-lurraldea-herritartasuna harreman modu «berriei» balioa emango dien agerpena eta berrikuntza lortzen dutenak.<br>Harremanean eta partaidetzan aurrerapenak bilatze horretan, bada «blockchain» izeneko teknologia berri bat, Interneten aldaketa sakona sortzen duena. Udal eremuari aplikatuta, beste modu batera kudeatu eta aurrera egin liteke herritarrekiko harreman horietan, bai eta horrek udal kudeaketan parte hartzen duen moduan ere, zergak ordaintzetik edo erroldatuta egoteagatik berak «ematen» dituenetatik harago.<br>**Helburua:** "Blockchain" metodologia ezarri, administrazioaren kudeaketa hobetzeko. |
| **Hartzaileak:** |
| GFA, herritarrak oro har eta gizarte erakundeak. |
| **Aurrekariak** |
| Orain arte ez da horrelako ezer egin. |
| **Konpromisoak** |
| A) «Blockchain» teknologia zer prozesutan erabil daitekeen identifikatu.<br>B) Proba pilotu bat edo gehiago egin «blockchain» teknologiarekin.<br>C) Teknologiaren aplikagarritasuna ebaluatu eta ikusi. |
| **Adierazleak** |
| A) Identifikatutako proiektu kopurua.<br>B) Egindako proba pilotu kopurua.<br>C) Balioespena eta aplikagarritasuna. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020-2022 |

# 37. ekintza. Entzute aktiborako gailuen prototipoak

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Gobernu Irekia herritarrak erdigunean jartzen dituen gobernua da, eta etengabe eta erregularki arduratzen da horien benetako beharrez eta iritziez. Herritarrenganako orientazio horrek interes orokorra bilatzen du beti, eta Administrazio Publikoaren zerbitzurako borondatea erakusten du. GFAk herritarren entzute aktiboa sustatu nahi du, beren kezken pultsua hartzeko. Administrazioak entzute aktiboaren datuak eskaini behar ditu, herritarrek kontsultatu eta berrerabili ahal izan ditzaten, haien intereserako eta enplegua eta aberastasuna sortzeko. **Helburua:** GFAren jarduera bideratu, ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko. |
| **Hartzaileak** |
| Herritarrak oro har. |
| **Aurrekariak** |
| Orain arte ez da horrelako ekintzarik egin. |
| **Konpromisoak** |
| A) Entzute aktiborako gailuen diagnosi bat egin.<br>B) Entzute aktiborako gailuen prototipoak egin. |
| **Adierazleak** |
| A) Garatutako diagnosia.<br>B) Garatutako gailu kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2022 |

# 38. ekintza. Herritarren partaidetzako Buru Moldeen tresnak

## Definizioa

Gutxienez *20 buruko molde, betaurreko edo iragazki* dituen tresna bat sortzea. «Partaidetzaren pedagogiarako» tresnak, erabiltzaileei estrategia eta eredu mental desberdinak aurkitzen lagunduko dieten metafora eta adibideetatik abiatuta. Tresnaren kontakizun osoa, bai eta «moldeak» ere, herritarren partaidetza sustatzera bideratuta egongo dira soil-soilik, hizkera erraza erabiliz eta berrikuntza publiko eta sozialei lotutako adibideak soilik erabiliz. «Molde» horien logika errealitatea ohi ez bezala aztertzeko «betaurreko» gisa balio duten «konponbide eredu» desberdinen arrastoak ematean datza. Tresnaren erabiltzaileek «betaurrekoak» probatu ahal izango dituzte proiektu eta erronka publiko edo sozialak aztertzeko, eta, ikusten dutenetik abiatuta, partaidetzako berrikuntza aukerak aurkitzeko. **Helburua:** herritarren partaidetzaren aldeko begirada hezten lortzea.

## Hartzaileak

Herritarrak oro har, gizarte erakundeak eta administrazio publikoetako langileak.

## Aurrekariak

Ez da horrelako ezer egin.

## Konpromisoak

A) Tresna bat sortu honako hauekin: gutxienez 20 molde, galdera eta gomendio dituen webgune bat, aplikatu ahal izateko; parte hartzeko moduko berrikuntza publiko edo sozialaren gutxienez 6 adibide eta «*Cartoon*» motako azalpen bideoak**.**

B) Erremintan prestakuntza ziklo bat egitea, efektu biderkatzailea sortzeko helburuarekin. Tailer horiek bi goizetan egingo lirateke, 5 ordukoa izango litzateke bakoitza, eta astebeteko tartea egongo litzateke bi saioen artean.

## Adierazleak

A) Sortutako tresna (sortutako webgunea, sortutako moldeen kopurua, proposamenaren arabera sortuko diren molde eta bideo edo euskarri digital bakoitzean sartutako gomendioen eta galderen zenbatekoa).

B) Egindako prestakuntza zikloak.

## Gutxi gorabeherako egutegia

2020-2021

# 39. ekintza. Herritarren partaidetzako Innogida

| **Definizioa** |
|---|
| «Partaidetza prozesuak bultzatzeko eta kudeatzeko gida» bat diseinatzea, gai horietan interesa duen edonoren prestakuntza autodidaktikorako gailu digital gisa balioko duena, eta, bereziki, Administrazioko langileentzat. **Helburua:** parte hartzeko prozesuak garatzeko eta kudeatzeko prestakuntza eskaintzea. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako funtzionarioak, teknikariak eta herritarrak. |
| **Aurrekariak** |
| Formatu ez-digitaleko gida ugari daude, partaidetza prozesu bat gauzatzeko mugarri/fase nagusiak zeintzuk diren irakasteko. Baina ez dago gai hori oso modu didaktikoan lantzen duen tresna digitalik. |
| **Konpromisoak** |
| A) Metodologiak bildu.<br>B) Gida digitala osatu. |
| **Adierazleak** |
| A) Txertatutako metodologia kopurua.<br>B) Osatutako gida. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2022 |



# 4. ildo estrategikoa. ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIAK

## Herritarren partaidetza bermatu eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egitura eta araudiak ezarri eta bultzatu

| | |
|---|---|
| **10. esparrua.** ORGANOAK | **40. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua |
| | **41. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea |
| | **42. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Laborategia |
| | **43. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa |
| | **44. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa |
| **11. esparrua.** PARTAIDETZA ESPARRUAK | **45. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Alorreko Espazioetarako Gobernantza Eredu bateratua zehaztu |
| | **46. ekintza:** Elkarteen foroa |
| | **47. ekintza:** GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa |
| **12. esparrua.** ARAUDIEN GARAPENA | **48. ekintza:** Araudien garapena |
| | **49. ekintza:** Kode etiko baten garapena |

# 4. IE. ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIAK

## Herritarren partaidetza bermatu eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egitura eta araudiak ezarri eta bultzatu

## 10. esparrua. **ORGANOAK**

**Helburua:** GFAk garatutako partaidetza prozesuak kudeatu, herritarren partaidetzako foru organoen bidez.

**40. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua
**41. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea
**42. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Laborategia
**43. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa
**44. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa

# 40. ekintza. Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua

## Definizioa

Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua martxan jartzea. Funtzioak:

- GFAri aholku ematea herritarren partaidetzaren arloko helburuak eta jarduerak zehazteari buruz, bai eta egiten diren partaidetza prozesuen jarraipenari eta ebaluazioari buruz eta partaidetza esperientziari buruz ere; horretarako, egokitzat jotzen dituen jarduketa eta erreforma proposamenak egingo ditu.
- Aldundiak herritarren partaidetzaren arloan egin beharreko jarduera proposamenei buruzko informazioa ematea, eta, bereziki, partaidetza programaren aurreproiektuari buruzkoa, bertan sartzeko egokitzat jotzen dituen proposamenak eginez.
- Partaidetza prozesu bakoitzaren azken ebaluazioari buruzko informazioa ematea.
- Aurreikusitako aldia amaitzean, Partaidetza Programaren aplikazioaren berri ematea, eta hori gainbegiratzea zein baliozkotzea.
- Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Araua aldatzeko proposamenen berri ematea.

Gizarte Kontseilua arduratuko da proposamenak eztabaidatu eta formulatzeaz, txostenak eta azterlanak egitea proposatzeaz, partaidetzarako sektore guneak sortzea adosteaz, partaidetza esperientzien trukea sustatzeaz eta Foru Aldundiari haien jarduerari eta funtzionamenduari buruzko kontuak emateaz.

**Helburua:** Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak behar bezala funtzionatzen duela bermatzea.

## Hartzaileak

GFA eta herritarrak oro har.

## Aurrekariak

Aurreko legealdian Gizarte Kontseilua sortu zen dekretu bidez, baina ez zen martxan jarri.

## Konpromisoak

A) Sortutako organoa martxan jarri.

## Adierazleak

A) Egindako bilkura kopurua.
Bilkura bakoitzeko partaide kopurua.

## Gutxi gorabeherako egutegia

2020/2021/2022/2023

# 41. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea dinamizatzea. Herritarren partaidetzarako zuzendaritza eta koordinazio organoan Foru Aldundiko departamentu guztiak daude ordezkatuta. **Helburua:** GFAren jarduerak koordinatzea herritarren partaidetzaren esparruan eta, zehatzago, Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Arauan araututako partaidetza prozesuak gauzatzean, eta foru departamentuek eremu horretan egiten duten jardueraren koherentzia eta osagarritasuna bermatzea eta zaintzea. |
| **Hartzaileak** |
| Foru Aldundiko departamentuetako ordezkari politikoek eta, gainera, adituek ere parte hartu ahal izango dute saioetan. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea aktibatu zen. |
| **Konpromisoak** |
| A) Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea martxan mantentzea. |
| **Adierazleak** |
| A) Proiektu bakoitzeko egindako bilkura kopurua.<br>Batzordearen zuzendaritzapean egindako proiektu kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 42. ekintza. Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Laborategia

## Definizioa

Haurtzaroko etapa bakoitzera egokitutako laborategi bat sortzea, behar bezala dinamizatua eta informatua, partaidetzaren bidez, haurrek eta nerabeek politika publikoen esparruan interesgarriak diren gaiak landu ahal izan ditzaten. Espazio horretatik ondorioak atera ahal izango dira, gai hauen inguruan:

- Haur eta nerabeek parte hartzeko lurralde eredu bat diseinatzea eta egituratzea, politika publikoetara bideratuta.
- Gazteria Departamentuarekin lankidetzan aritzea haurren eta gazteen arloan, lankidetza eta informazio egiturak eta bideak ezartzeko, haur eta nerabeek subjektu politiko gisa aktiboki parte har dezaten sustatzeko.
- Haurrek eta nerabeek bizitza publikoan duten partaidetza aktiboari buruz hausnartzea, eta horri buruz lankidetza bideak lantzea.

**Helburua:** Gizartean eragina duten gaietan partaidetzak eta inplikazioak duten garrantziari buruzko kultura sortzea haurtzaroan, ahots guztiak entzunez, guztion artean Gipuzkoa hobea eraikitzeko.

## Hartzaileak

Gipuzkoako haurrak eta nerabeak.

## Aurrekariak

Aurreko legealdian hainbat bilera egin ziren Gazteria Zuzendaritzarekin eta UNICEFekin, proiektu hau gauzatzeko modurik egokienaz hausnartzeko. Hainbat proiektu garatu dira herritarren partaidetzaren ikuspegidun politikak hedatzeko, gure gobernantza programen bidez haur eta nerabeei arreta berezia jarriz.

## Konpromisoak

A) Laborategi bat eratu eta abian jarri, etorkizunean haur eta nerabeek parte hartzeko organoa diseinatzeko.
B) Ebaluazio txosten bat egin, Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa martxan jartzeko (43. ekintza).

## Adierazleak

A) Laborategia martxan jarri.
Partaidetza Laborategia osatzen duten pertsonak balioetsi.
B) Ebaluazio txostena egin izana.

## Gutxi gorabeherako egutegia

2020-2021

# 43. ekintza. Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa

| **Definizioa** |
|---|
| Gipuzkoako haurren eta nerabeen partaidetza lantzeko organo bat sortzea. Behar bezala dinamizatuta eta informatuta egongo da, eta GFAko Gazteria Departamentuarekin batera lan egingo du. Organo hori izango da Gipuzkoako haur eta nerabeek bizitza publikoan duten partaidetzari buruz hausnartzeko gunea.<br>**Helburua:** Gizartean eragina duten gaietan partaidetzak eta inplikazioak duten garrantziari buruzko kultura sortzea haurtzaroan, ahots guztiak entzunez, guztion artean Gipuzkoa hobea eraikitzeko. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako haurrak eta nerabeak. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian hainbat bilera egin ziren Gazteria Zuzendaritzarekin eta UNICEFekin, proiektu hau gauzatzeko modurik egokienaren inguruan hausnartzeko. Hainbat proiektu garatu dira herritarren partaidetzaren ikuspegidun politikak hedatzeko, gure gobernantza programen bidez haur eta nerabeei arreta berezia jarriz. |
| **Konpromisoak** |
| A) Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa diseinatu.<br>B) Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa martxan jarri.<br>C) Partaidetza Organoa osatzen duten haur eta nerabeen gogobetetze maila balioetsi (10etik 7 baino gehiago). |
| **Adierazleak** |
| A) Organoa diseinatu.<br>B) Organoa martxan jarri.<br>C) Partaidetza Organoa osatzen duten haur eta nerabeen gogobetetze maila. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2022 |

# 44. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa

| **Definizioa** |
|---|
| Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioaren plangintza estrategikoa eta dinamizazioa garatu. Organo horrek herritarren partaidetzarako politikak indartzen ditu toki mailan, baliabideak partekatzen ditu, jardunbide egokiak eta arrakasta ereduak identifikatzen eta partekatzen ditu, eta sarea osatzen duten erakundeen artean horiek aplikatzea sustatzen du. Herritarren partaidetzari buruzko gai espezifikoak landuko dituzten hainbat lantalde jarriko dira martxan. **Helburua:** Toki erakundeekiko lankidetza bultzatzea eta partaidetzaren inguruko hausnarketa estrategikorako gune bat sortzea, Erakunde arteko Espazioaren datozen 4 urteetarako plangintza estrategikoa egiteko. |
| **Hartzaileak** |
| Gipuzkoako udalak eta erakunde txikiak. |
| **Aurrekariak** |
| Urtarrilaren 17ko 1/2017 Foru Dekretu bidez jarri zen abian espazio hori, aurreko legealdian beraz. Gipuzkoan herritarren partaidetzaren inguruko esperientziak eta ezagutza partekatzeko sare bat garatzen joan da. |
| **Konpromisoak** |
| A) Hausnarketa estrategikoa egin.<br>B) Espazio exekutiboan datozen 4 urteetarako ekintza ildo orokorrak adostu.<br>C) Udal guztien batzar bat, organo betearazlearen 2 bilera, koordinazio teknikoko 3 bilera, lantalde bakoitzeko 3 proiektu bilera, teknikariei eta politikoei zuzendutako 2 prestakuntza proposamen eta ebaluaziorako azken bilera bat egin, gutxienez.<br>D) Plangintza estrategikoan parte hartu duten pertsonen asebetetze maila balioetsi (10etik 7 baino gehiago). |
| **Adierazleak** |
| A) Hausnarketa estrategikoa eta plangintza egin izana.<br>B) Egindako bilkura kopurua.<br>C) Abian jarritako berariazko lantalde kopurua.<br>Organo exekutiboaren erabakia.<br>D) Erakunde arteko Espazioan parte hartu duten pertsonen asebetetze maila. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

# 4. IE. ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIAK

Herritarren partaidetza bermatu eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egitura eta araudiak ezarri eta bultzatu

## 11. esparrua. **PARTAIDETZA ESPARRUAK**

**Helburua:** herritarren partaidetza sustatzeko espazioak eskaini.

**45. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Alorreko Espazioetarako Gobernantza Eredu bateratua zehaztu
**46. ekintza:** Elkarteen foroa
**47. ekintza:** GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa

# 45. ekintza. Herritarren Partaidetzako Alorreko Espazioetarako Gobernantza Eredu bateratua zehaztu

| **Definizioa** |
|---|
| GFAk hainbat espazio, kontseilu, sektoreko eta herritarren partaidetzarako mahai ditu eratuta. Espazio horiek homogeneizatzeko, Kontseilu Sektorialen etorkizuneko gobernantza eredua modu esperimentalean lantzea proposatzen da, **Laborategi** baten bidez. Proiektu honek aztertu eta kontuan hartuko ditu horien kudeaketa onean eragiten duten alderdi eta baldintza guztiak. **Helburua:** gune bakoitzeko gobernantza ereduen diagnostikoa egitea, indarguneak eta ahulguneak identifikatuz eta hobetu daitezkeen eremuak hautemanez**.** Horien guztien funtzionamendu egokia bermatzeko gobernantza eredu bateratu bat egitea eta ezartzea litzateke azken helburua. |
| **Hartzaileak** |
| - Kontseilu Sektorialak, partaidetza mahai sektorialak eta herritarren partaidetza mahaiak.<br>- Kontseilu Sektorialekin lan egiten duten Foru Aldundiko zuzendaritzak. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian, gune horien inguruko diagnostiko bat egin zen. Komenigarria litzateke informazio hori biltzea eta, azterlan horretan oinarrituta, proiektua garatzea, eta, azkenean, zehaztutako gobernantza ereduari buruzko gida bat egitea. |
| **Konpromisoak** |
| A) Gobernantza ereduen eta GFAko gune eta kontseiluetako partaidetzaren kalitatearen diagnostikoa egin, PROSPEKZIOA, ESPERIMENTAZIOA eta TRANSFERENTZIA erabiliz**.**<br>B) Gobernantza Laborategi bat sortu.<br>C) Garatutako gobernantza ereduaren gida bat egin, gune edo kontseiluetan partaidetzaren kalitatea hobetzeko zenbait gomendio barne. |
| **Adierazleak** |
| A) Aztertutako gobernantza ereduak.<br>Parte hartu duten pertsonen asebetetze maila.<br>B) Laborategia sortu izana (bai/ez).<br>C) Garatutako gobernantza ereduaren gida, gomendioekin. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2021-2022 |

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

# 46. ekintza. Elkarteen foroa

## Definizioa

Herritarren partaidetza lantzen duten herritar erakundeekin elkartzeko gune bat sortzea. Herritar erakundeekin batera zehaztu beharko da organo hori. **Helburua:** Hausnarketarako, elkar ezagutzeko eta prestakuntzarako gune bat sortzea lurraldeko herritarren erakundeekin batera, kultura parte-hartzaileagoa bultzatzeko.

## Hartzaileak

Herritar erakundeak.

## Aurrekariak

2019 amaieran bilkura bat egin zen Gipuzkoan herritarren partaidetzaren inguruan lan egiten duten herritar erakundeekin, Partaidetzako Zuzendaritzarekin lan espazio bat sortzeko interesik ote zuten ezagutzeko, eta aldi berean, beren prestakuntza premiak antzemateko. Bilkuran egon ziren erakundeek adierazi zuten prest zeudela ideia ondu eta Foroaren funtzioak zehazteko.

## Konpromisoak

A) Herritarren 10 erakunde baino gehiagorekin definizio prozesu bat sortu.
B) Prozesuan parte hartu duten pertsonen asebetetze maila orokorra balioetsi, eta hori 10 puntutik 7tik gorakoa izatea.

## Adierazleak

A) Elkarteen Foroan parte hartzen duten herritar erakundeen kopurua.
B) Prozesuan parte hartu duten pertsonen batez besteko balioespena.

## Gutxi gorabeherako egutegia

2020

# 47. ekintza. GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Departamentu Arteko Batzordea (DAB)ren babespean, lantalde tekniko bat sortzea zuzendaritzek elkarrekin gogoeta egin dezaten Aldundian herritarren partaidetza nola lantzen den edo nola landu beharko litzatekeen eta abian jarri behar diren lan prozesuen inguruan. **Helburua:** irizpideak bateratzea eta partaidetza politika bakarra sortzea, lan prozesuetan partaidetza txertatuz. Gainera, interesgarria litzateke gai honetan GFAn eta beste administrazio batzuetan egiten dena ezagutzea, jardunbide egokiak hartzeko oinarri gisa balio dezan.<br>(Ekintza hori guztiz bat dator Etorkizuna Eraikiz programaren helburuetako batekin, programaren sozializazioaren ikuspegiari dagokionez). |
| **Hartzaileak** |
| Herritarren partaidetzari buruzko gaiak GFAko zuzendaritzetan lantzeko gaitasuna duten GFAko teknikariak. |
| **Aurrekariak** |
| GFAn 2007az geroztik modu sistematizatuan lantzen da herritarren partaidetzaren kultura. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da partaidetzaren kultura modu homogeneoan zabaltzea GFAko departamentu guztietara, irizpideak bateratuz eta berrikuntza eta hobekuntza esparruak identifikatuz. |
| **Konpromisoak** |
| A) Lantalde tekniko bat eratu, lan prozesuetan partaidetza txertatzeko moduan lan egiteko.<br>B) Bestelako administrazioetako esperientzien inguruko prestakuntza eta informazioa eman. |
| **Adierazleak** |
| A) Lantalde bat sortu izana.<br>Parte hartu duten departamentu/pertsona kopurua.<br>Pilotatutako proiektu kopurua.<br>B) Egindako prestakuntza/informazio saioen kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2021/2022/2023 |

# 4. IE. ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIAK

## Herritarren partaidetza bermatu eta sustatzeko beharrezkoak diren organo, egitura eta araudiak ezarri eta bultzatu

## 12. esparrua. **ARAUDIEN GARAPENA**

**Helburua:** herritarren partaidetza prozesuek behar bezala funtzionatzeko arauak garatu.

**48. ekintza:** Araudien garapena
**49. ekintza:** Kode etiko baten garapena

# 48. ekintza. Araudiak garatu

| |
|---|
| **Definizioa** |
| 5/2018 Foru Araua, azaroaren 12koa, Herritarren Partaidetzari buruzkoa, garatzea. **Helburua:** bertan parte hartzeko aurreikusitako prozedurak praktikan jarri ahal izatea, Foru Aldundiari dagozkion gobernu eta administrazio eginkizunei buruzko erabakiak hartzerakoan pertsonek aktiboki parte hartzeko duten gaitasuna bultzatuz**.** |
| **Hartzaileak** |
| GFA, herritarrak, herritar erakundeak eta toki erakundeak. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian, 5/2018 Foru Arau berria, azaroaren 12koa, Herritarren Partaidetzari buruzkoa, onartu zenez, herritarren partaidetzako zenbait tresna garatu dira. |
| **Konpromisoak** |
| A) 5/2018 Foru Arauan xedatutako Herritarren Partaidetza Sistema erregelamendu bidez garatu. |
| **Adierazleak** |
| A) Araudia onartu izana. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020 |

# 49. ekintza. Kode etiko baten garapena

| **Definizioa** |
|---|
| Herritarren partaidetzarako Kode Etikoa garatzea, herritarrek parte hartzeko prozesuak behar bezala garatzen direla eta prozesu horiek gauzatzeko erabiltzen diren partaidetza tresnak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko. **Helburua:** Herritarren partaidetza prozesuek behar bezala funtzionatzeko arauak garatzea. |
| **Hartzaileak** |
| GFA, herritarrak, herritar erakundeak eta toki erakundeak. |
| **Aurrekariak** |
| Orain arte, ildo horretan ez da dokumenturik garatu. |
| **Konpromisoak** |
| A) Lantaldea osatu.<br>B) Txertatu beharreko gaiak aztertu.<br>C) Partaidetzaren inguruko Kode etiko bat osatu.<br>D) Kode Etikoa ebaluatu. |
| **Adierazleak** |
| A) Lantaldea osatu izana (bai/ez).<br>B) Txertatutako gai kopurua.<br>C) Kode Etikoa osatu izana (bai/ez).<br>D) Kode Etikoari emandako balioespena. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2021-2022 |

# EUSKARRI TRESNAK

| | |
|---|---|
| **1. euskarri tresna:** Egikaritze egutegia |
| **2. euskarri tresna:** Komunikazioa eta sozializazioa |
| **3. euskarri tresna:** Monitorizazioa |

# 1. euskarri tresna. Egikaritze egutegia

| |
|---|
| **Definizioa** |
| Martxan dagoen bitartean, legealdiko urte bakoitzean, Herritarren Partaidetzako Planak zehaztu beharko du zein partaidetza prozesu garatu nahi diren. Horretarako, egutegi bat sortu beharko da, garatu nahi diren ekintza zein prozesuak eta horien epeak zehaztuta. **Helburua:** epe bakoitzean egin nahi diren ekintza eta prozesuen egutegi bat edukitzea, legealdian zehar, Planaren etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko. |
| **Hartzaileak** |
| GFAren barne kontrola eta herritarrak oro har. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian ez zen Plana egikaritzeko egutegirik osatu. |
| **Konpromisoak** |
| A) Herritarren Partaidetzako 2019-2023 Planean proposatutako ekintza eta prozesu guztien jarraipena egin. |
| **Adierazleak** |
| A) Urterako aurreikusitako ekintza kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

## 2. euskarri tresna. Komunikazioa eta sozializazioa

| **Definizioa** |
|---|
| Barneko zein kanpoko komunikazio plan bat egingo da, Partaidetza Plana eta legealdian garatu nahi diren ekintzak eta prozesuak ezagutu daitezen. Era berean, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza ezagutzen eta horrek egiten duen lana ikusarazten lagunduko du. Komunikazio plana egiteko, kontuan hartu beharko da zer publikori zuzentzen zaion eta zer ekintza egingo diren bakoitzarekin. **Helburua:** Partaidetza Plana ezagutaraztea eta Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak egiten duen lana eta balioak ikusaraztea**.** |
| **Hartzaileak** |
| Batzar Nagusiak, GFA, udalak, bestelako erakundeak, elkartea eta herritarrak oro har. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian ez zen komunikazio plan bat egon, baina abian jarritako prozesu bakoitzaren berri eman zen. |
| **Konpromisoak** |
| A) Kanpo eta barne komunikazio plan bat osatu.<br>B) Aipatutako Planaren eragin maila balioetsi. |
| **Adierazleak** |
| A) Onartutako komunikazio plana.<br>B) Partaidetza prozesuetako partaide kopurua areagotu. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

# 3. euskarri tresna. Monitorizazioa

| **Definizioa** |
|---|
| Ekintzen garapena eta horien emaitzak kontrolatzeko tresna bat sortzea. Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak hautatuko ditu prozesu eta emaitza adierazle egokiak, Herritarren Partaidetza Planean zehaztutako ekintzen jarraipena egin ahal izateko. Aurrerago, ekintzen prozesuaren jarraipen bat egingo da, eta amaieran emaitza aztertuko da. **Helburua:** ekintzak garatzea eta horien emaitza kontrolatzea. |
| **Hartzaileak** |
| GFAren barne kontrola eta herritarrak oro har. |
| **Aurrekariak** |
| Aurreko legealdian monitore bat sortu zen Herritarren Partaidetza Planeko ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko. |
| **Konpromisoak** |
| A) Prozesuen garapena kontrolatu, prozesu adierazleen bidez.<br>B) Prozesuen garapena kontrolatu, emaitza adierazleen bidez. |
| **Adierazleak** |
| A) Betetako prozesu adierazleen kopurua.<br>B) Partaidetza Planaren betetako emaitza adierazleen kopurua. |
| **Gutxi gorabeherako egutegia** |
| 2020/2021/2022/2023 |

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

## c) AZKEN BALANTZEA

**8. taula. Planeko ekintzak, jarraituak edo berriak izatearen arabera sailkatuta**

| | | Jarraitua | Berria |
|---|---|---|---|
| **1. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | |
| **1. esparrua.** HAUSNARKETA ETA ERABAKI HARTZEA | **1. ekintza:** Partaidetza tresnak sistematizatu | X | |
| | **2. ekintza:** Partaidetzako hausnarketa prozesuak | X | |
| | **3. ekintza:** Herri kontsultak | X | |
| | **4. ekintza:** Arau aurreproiektuak sortzea | X | |
| | **5. ekintza:** Herritar panelak | | X |
| | **6. ekintza:** Herri epaimahaiak | | X |
| | **7. ekintza:** Bestelako partaidetza prozesuak | X | |
| **2. esparrua.** PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK | **8. ekintza:** Aurrekontu Irekiak | X | |
| **3. esparrua.** DIRULAGUNTZAK | **9. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak | X | |
| | **10. ekintza:** Herritar erakundeentzako dirulaguntzak | X | |
| **4. esparrua.** AHOLKULARITZA | **11. ekintza:** Erakundearen barne aholkularitza | X | |
| | **12. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza | X | |
| | **13. ekintza:** Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza | | X |
| **5. esparrua.** EBALUAZIOA | **14. ekintza:** Ebaluazioa | | X |
| **Guztira** | **14** | **10** | **4** |
| **2. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | |
| **6. esparrua.** PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA | **15. ekintza:** Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola | | X |
| | **16. ekintza:** Erakundearen barne prestakuntza | | X |
| | **17. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza | X | |
| | **18. ekintza.** Partaidetzako profesionalaren profila eta gaitasunak zehaztu | | X |
| | **19. ekintza:** Partaidetza akreditazioa | | X |
| | **20. ekintza:** Udako Ikastaro parte-hartzaileak | | X |
| **7. esparrua.** EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANS-FERENTZIA | **21. ekintza:** Txostenak eta sistematizazioa | X | |
| | **22. ekintza:** Gidak | X | |
| | **23. ekintza:** Newsletterra | X | |
| | **24. ekintza:** Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa | | X |
| | **25. ekintza:** Artikulu akademikoak | | X |
| | **26. ekintza:** Ekitaldiak | X | |
| | **27. ekintza:** OGP Euskadin parte hartu | X | |
| | **28. ekintza:** Sare akademiko profesionalak | X | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | **29. ekintza:** Herritar Erakundeen Erregistroa | X | |
| | **30. ekintza:** 5/2018 Foru Arauko II. tituluan jasotako eskubideen berri eman | | X |
| **8. esparrua.** AITORPENA | **31. ekintza:** Sariak udalei eta entitateei | | X |
| | **32. ekintza:** Sariak bestelako eragileei | X | |
| **Guztira** | **18** | **9** | **9** |
| **3. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | |
| **9. esparrua.** BERRIKUNTZA | **33. ekintza:** Plataforma kolaboratiboa | X | |
| | **34. ekintza:** Adimen Kolektiboko Software Sozial Laborategia | | X |
| | **35. ekintza:** Sare Sozialak | X | |
| | **36. ekintza:** “Blockchain” proiektu pilotua | | X |
| | **37. ekintza:** Entzute aktiborako gailuen prototipoak | | X |
| | **38. ekintza:** Herritarren partaidetzako Buru Moldeen tresnak | | X |
| | **39. ekintza:** Partaidetza kolektiboko Innogida | | X |
| **Guztira** | **7** | **2** | **5** |
| **4. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | |
| **10. esparrua.** ORGANOAK | **40. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua | | X |
| | **41. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea | X | |
| | **42. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Laborategia | | X |
| | **43. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa | | X |
| | **44. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa | X | |
| **11. esparrua.** PARTAIDETZA ESPARRUAK | **45. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Alorreko Espazioetarako Gobernantza Eredu bateratua zehaztu | | X |
| | **46. ekintza:** Elkarteen foroa | | X |
| | **47. ekintza:** GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa | | X |
| **12. esparrua.** ARAUDIEN GARAPENA | **48. ekintza:** Araudien garapena | | X |
| | **49. ekintza:** Kode etiko baten garapena | | X |
| **Guztira** | **10** | **2** | **8** |
| **EUSKARRI TRESNAK** | | | |
| | **1. euskarri tresna:** Egikaritze egutegia | | X |
| | **2. euskarri tresna:** Komunikazioa eta sozializazioa | | X |
| | **3. euskarri tresna:** Monitorizazioa | X | |
| **Guztira** | **3** | **1** | **2** |
| **GUZTIRA** | **52** | **24** | **28** |

**9. taula. Planean proposatutako ekintzen gutxi gorabeherako egutegia**

| | | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|---|---|
| **1. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | | | |
| **1. esparrua.** HAUSNARKETA ETA ERABAKI HARTZEA | **1. ekintza:** Partaidetza tresnak sistematizatu | | | | |
| | **2. ekintza:** Partaidetzako hausnarketa prozesuak | | | | |
| | **3. ekintza:** Herri kontsultak | | | | |
| | **4. ekintza:** Arau aurreproiektuak sortzea | | | | |
| | **5. ekintza:** Herritar panelak | | | | |
| | **6. ekintza:** Herri epaimahaiak | | | | |
| | **7. ekintza:** Bestelako partaidetza prozesuak | | | | |
| **2. esparrua.** PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK | **8. ekintza:** Aurrekontu Irekiak | | | | |
| **3. esparrua.** DIRULAGUNTZAK | **9. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak | | | | |
| | **10. ekintza:** Herritar erakundeentzako dirulaguntzak | | | | |
| **4. esparrua.** AHOLKULARITZA | **11. ekintza:** Erakundearen barne aholkularitza | | | | |
| | **12. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza | | | | |
| | **13. ekintza:** Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza | | | | |
| **5. esparrua.** EBALUAZIOA | **14. ekintza:** Ebaluazioa | | | | |
| **2. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | | | |
| **6. esparrua.** PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA | **15. ekintza:** Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola | | | | |
| | **16. ekintza:** Erakundearen barne prestakuntza | | | | |
| | **17. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza | | | | |
| | **18. ekintza.** Partaidetzako profesionalaren profila eta gaitasunak zehaztu | | | | |
| | **19. ekintza:** Partaidetza akreditazioa | | | | |
| | **20. ekintza:** Udako Ikastaro parte-hartzaileak | | | | |
| **7. esparrua**. EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA | **21. ekintza:** Txostenak eta sistematizazioa | | | | |
| | **22. ekintza:** Gidak | | | | |
| | **23. ekintza:** Newsletterra | | | | |
| | **24. ekintza:** Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa | | | | |
| | **25. ekintza:** Artikulu akademikoak | | | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **26. ekintza:** Ekitaldiak | | | | |
| | **27. ekintza:** OGP Euskadin parte hartu | | | | |
| | **28. ekintza:** Sare akademiko profesionalak | | | | |
| | **29. ekintza:** Herritar Erakundeen Erregistroa | | | | |
| | **30. ekintza:** 5/2018 Foru Arauko II. tituluan jasotako eskubideen berri eman | | | | |
| **8. esparrua.** AITORPENA | **31. ekintza:** Sariak udalei eta erakundeei | | | | |
| | **32. ekintza:** Sariak bestelako eragileei | | | | |
| **3. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | | | |
| **9. esparrua.** BERRIKUNTZA | **33. ekintza:** Plataforma kolaboratiboa | | | | |
| | **34. ekintza:** Adimen Kolektiboko Software Sozial Laborategia | | | | |
| | **35. ekintza:** Sare Sozialak | | | | |
| | **36. ekintza:** “Blockchain” proiektu pilotua | | | | |
| | **37. ekintza:** Entzute aktiborako gailuen prototipoak | | | | |
| | **38. ekintza:** Herritarren partaidetzako Buru Moldeen tresnak | | | | |
| | **39. ekintza:** Partaidetza kolektiboko Innogida | | | | |
| **4. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | | | |
| **10. esparrua.** ORGANOAK | **40. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua | | | | |
| | **41. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea | | | | |
| | **42. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Laborategia | | | | |
| | **43. ekintza:** Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa | | | | |
| | **44. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa | | | | |
| **11. esparrua.** PARTAIDETZA ESPARRUAK | **45. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Alorreko Espazioetarako Gobernantza Eredu bateratua zehaztu | | | | |
| | **46. ekintza:** Elkarteen foroa | | | | |
| | **47. ekintza:** GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa | | | | |
| **12. esparrua.** ARAUDIEN GARAPENA | **48. ekintza:** Araudien garapena | | | | |
| | **49. ekintza:** Kode etiko baten garapena | | | | |
| **EUSKARRI TRESNAK** | | | | | |
| | **1. euskarri tresna:** Egikaritze egutegia | | | | |
| | **2. euskarri tresna:** Komunikazioa eta sozializazioa | | | | |
| | **3. euskarri tresna:** Monitorizazioa | | | | |

**10. taula. Planean proposatutako ekintzen hartzaileak**

| | | GFA | Herritarrak | Erakundeak | Udalak eta erakunde txikiak | Batzar Nagusiak | Adituak | Haurrak eta nerabeak | Publiko akademikoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | | | | | | | |
| **1. esparrua.** HAUSNARKETA ETA ERABAKI HARTZEA | **1. ekintza:** Partaidetza tresnak sistematizatu | X | X | X | X | | | | |
| | **2. ekintza:** Partaidetzako hausnarketa prozesuak | X | X | X | | X | | | |
| | **3. ekintza:** Herri kontsultak | X | X | X | | X | | | |
| | **4. ekintza:** Arau aurreproiektuak sortzea | X | X | X | | | | | |
| | **5. ekintza:** Herritar panelak | | X | | | | | | |
| | **6. ekintza:** Herri epaimahaiak | | X | | | | | | |
| | **7. ekintza:** Bestelako partaidetza prozesuak | X | X | X | | | | | |
| **2. esparrua.** PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK | **8. ekintza:** Aurrekontu Irekiak | | X | | | | | | |
| **3. esparrua.** DIRULAGUNTZAK | **9. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak | | | | X | | | | |
| | **10. ekintza:** Herritar erakundeentzako dirulaguntzak | | | X | | | | | |
| **4. esparrua.** AHOLKULARITZA | **11. ekintza:** Erakundearen barne aholkularitza | X | | | | | | | |
| | **12. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza | | | | X | | | | |
| | **13. ekintza:** Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza | | X | X | | | | | |
| **5. esparrua.** EBALUAZIOA | **14. ekintza:** Ebaluazioa | X | X | | | | | | |
| **2. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | | | | | | | |
| **6. esparrua.** PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA | **15. ekintza:** Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola | X | X | X | X | | | | |
| | **16. ekintza:** Erakundearen barne prestakuntza | X | | | | | | | |
| | **17. ekintza:** Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza | | | | X | | | | |
| | **18. ekintza:** Partaidetzako profesionalaren | X | | X | X | | | | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | profila eta gaitasunak zehaztu | | | | | | | | |
| | **19. ekintza:** Partaidetza akreditazioa | X | | X | X | | | | |
| | **20. ekintza:** Udako Ikastaro parte-hartzaileak | | X | | | | | | |
| **7. esparrua.** EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA | **21. ekintza:** Txostenak eta sistematizazioa | X | X | X | X | | | | |
| | **22. ekintza:** Gidak | X | X | X | X | | | | |
| | **23. ekintza:** Newsletterra | X | X | X | | | | | |
| | **24. ekintza:** Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa | X | X | X | X | | | | |
| | **25. ekintza:** Artikulu akademikoak | | | | | | | | X |
| | **26. ekintza:** Ekitaldiak | X | X | X | X | | X | | |
| | **27. ekintza:** OGP Euskadin parte hartu | X | X | X | X | | X | | |
| | **28. ekintza:** Sare akademiko profesionalak | X | X | | | | | | |
| | **29. ekintza:** Herritar Erakundeen Erregistroa | | | X | | | | | |
| | **30. ekintza:** 5/2018 Foru Arauko II. tituluan jasotako eskubideen berri eman | | X | | | | | | |
| **8. esparrua.** AITORPENA | **31. ekintza:** Sariak udalei eta erakundeei | | | X | X | | | | |
| | **32. ekintza:** Sariak bestelako eragileei | | X | | | | | | |
| **3. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | | | | | | | |
| **9. esparrua.** BERRIKUNTZA | **33. ekintza:** Plataforma kolaboratiboa | X | X | X | X | | | | |
| | **34. ekintza:** Adimen Kolektiboko Software Sozial Laborategia | X | X | | X | | | | |
| | **35. ekintza:** Sare Sozialak | | X | X | | | | | |
| | **36. ekintza:** “Blockchain” proiektu pilotua | X | X | X | | | | | |
| | **37. ekintza:** Entzute aktiborako gailuen prototipoak | | X | X | | | | | |
| | **38. ekintza:** Herritarren partaidetzako Buru Moldeen tresnak | X | X | X | X | | | | |
| | **39. ekintza:** Partaidetza kolektiboko Innogida | X | X | X | X | | | | |
| **4. ILDO ESTRATEGIKOA** | | | | | | | | | |
| **10. esparrua.** ORGANOAK | **40. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Gizarte Kontseilua | X | X | | | | | | |
| | **41. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea | X | | | | | X | | |
| | **42. ekintza:** Haurren eta Nerabeen | | | | | | | X | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Partaidetzarako Gipuzkoako Laborategia | | | | | | | | |
| | **43. ekintza**: Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa | | | | | | | X | |
| | **44. ekintza:** Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa | | | | X | | | | |
| **11. esparrua.** PARTAIDETZA ESPARRUAK | **45. ekintza:** Herritarren Partaidetzako Alorreko Espazioetarako Gobernantza Eredu bateratua zehaztu | X | X | X | | | | | |
| | **46. ekintza:** Elkarteen foroa | | X | X | | | | | |
| | **47. ekintza:** GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa | X | | | | | | | |
| **12. esparrua.** ARAUDIEN GARAPENA | **48. ekintza:** Araudien garapena | X | X | X | | | | | |
| | **49. ekintza:** Kode etiko baten garapena | X | X | X | | | | | |
| EUSKARRI TRESNAK | | | | | | | | | |
| | **1. euskarri tresna:** Egikaritze egutegia | X | X | | | | | | |
| | **2. euskarri tresna:** Komunikazioa eta sozializazioa | X | X | X | X | X | | | |
| | **3. euskarri tresna:** Monitorizazioa | X | X | | | | | | |
| **GUZTIRA** | | 32 | 36 | 29 | 19 | 3 | 3 | 2 | 1 |

**3. irudia. Planean proposatutako ekintzen hartzaileak**

